

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2022ko urria / 331. zenbakia

www.oñati.eus  



Esperientzien gela abian Oñatin

Udalak eta Goienagusik antolatuta, urrian jarriko da martxan.

Goi mailako hizlariak Oñatiko Esperientzien Gela abian jartzeko

Sortzez oñatiarra den **Angel Chamorro** neurologoak iktusari buruz berba egingo du urriaren 14an. **Aitor Igiñiz** bidaiaria, **Juanjo Alvarez** eta **Felix Arrieta** izango dira hurrengo hizlariak



Angel Chamorro
URRIAK 14



Aitor Igiñiz
URRIAK 19



Juanjo Alvarez
AZAROAK 9



Felix Arrieta
AZAROAK 30

Ekaineko aldizkarian aurreratu genuen moduan, Udaleko Hezkuntza sailak ESPERIENTZIEN GELA izeneko ekimena jarriko du abian, Goienagusi Debagoieneko elkartearekin elkarlanean.

55 urtetik gorako herritar guztiei zuzendutako ekimena da ESPERIENTZIEN GELA. Ezagutza esparruak zabaltzea, kultura maila aberastea, aisialdiaz gozatzea, harreman berriak bideratzea, eta gizarte gaiekiko jarrera aktiboa sustatzea dira ekimen berri honen helburuak, eta horretarako hainbat ekintza (hitzaldiak, tailerrak, irteerak, bisita gidatuak...) antolatuko dira urtean zehar, gai ezberdinen inguruan (osasuna, historia, teknologia, zientzia, kultura, artea, ingurumena...).

Goienagusi elkarteak zehaztu ditu, dagoeneko, urrian eta azaroan Oñatin antolatuko dituen hitzaldiak, eta goian adierazi dugun moduan, goi mailako hizlariak gonbidatu dituzte Oñatiko Esperientzien Gela abian jartzeko.

Angel Chamorro neurologo ospetsuak emango dio hasiera hitzaldi sortari. Oñatin sortua, Bartzelonan bizi da egun Chamorro, eta bertako Clinic ospitaleko Garun Hodieta Patologien Unitateko zuzendaria da, besteak beste. **'Lo que sabemos del ictus'** hitzaldia emango du eta gaitz honen tratamenduaren inguruan egiten ari den ikerketaren berri emango du, besteak beste.

Azken 16 urteak mundu osoan zehar bizikletaz bidaiatzen eman dituen Aitor Igiñiz andoaindarra, Juanjo Alvarez legelaria, eta Felix Arrieta, Deustuko unibertsitateko irakaslea, izango dira hurrengo hizlariak. Denak ere aski ezagunak eta adituak nor bere arloan. Goienagusi elkarteak Oñatin ez ezik eskualdeko gainerako herrietan antolatzen dituen ekitaldiei buruzko informazioa <https://goienagusi.eus> webgunean.

Bazkide egiteko

GOIENAGUSI elkarteak hilean bi ekitaldi antolatuko ditu Oñatin 2022-2023 ikasturtean zehar, eta oñatiarrentzat dohainik izango dira. Arrasaten edo Bergaran antolatuko diren ekintzetan ere dohainik parte hartu ahal izango dute oñatiarrek, abenduaren 31ra arte. Hortik aurrera, eskualdeko beste herrietan antolatzen diren ekintzetan parte hartu ahal izateko Goienagusi elkarteak bazkide izan beharko da.

Informazioa eta izen-ematea:

- <https://goienagusi.eus>.
- goienagusi@gmail.com

ANGEL CHAMORRO / Neurologoa

"Nire helburua ez da txikia: iktusaren ondorioak nabarmen gutxitzen dituen medikamentua munduko ospitale-farmazia guztietan egotea. Eta bai, osasunak huts egiten ez badit, uste dut lortuko dudala"

Iktus baten ondoren pazienteen %60 kalterik gabe irtetea ahalbidetzen duen sendagai baten inguruko ikerketa egiten ari da Angel Chamorro neurologoa

Iktusak sei milioi heriotza eragiten ditu urtero munduan, eta hiltzen ez duenean ezintasuna eragiten duten ondorio larriak utzi ohi ditu. Zorionez, Angel Chamorro neurologoa ikertzen ari den sendagaia mugarrira izan daiteke iktusaren tratamenduan, gaitzak eragiten dituen lesioak %80an murriztu ditzakeela ikusi baita.

Oñatiko Esperientzien Gela ekimena abian jarriko duen hitzaldia ematea eskatu dizute. Nola jaso duzu gonbidapena? Harrotasun pertsonal handia da nire etxera gonbidatzea. Jendeak hitzaldiaz gozatzea espero dut.

Iktusari buruz hitz egingo duzu eta, zehazki, iktusari aurre egiteko ikertzen ari zaren sendagai bati buruz. Iktus bat izan




▲ **Angel Chamorro Sánchez** (Oñati, 1958) medikuntzan eta kirurgian doktorea da. Bartzelonako Clinic ospitaleko Iktusen Unitateko burua da, eta Bartzelonako Unibertsitateko irakasle titularra eta Iowa College of Medicine Unibertsitateko irakasle atxikia. **Duela gutxi SEN Ictus saria eman diote, gaitz honen inguruan egiten ari den ekarpen interesgarriengatik.**

eta hiru hilabetera pazienteen %60 ondoriorik gabe ateratzea ahalbidetu dezakeen sendagai bati buruz ari gara. Interes handiko gaia, dudarik gabe. Zer aurreratu dezakezu?

Deskubritu dugu pertsona batek iktus bat daukanean antioxidatzaile izeneko substantzia talde baten jaitziera oso garrantzitsua gertatzen dela ordu gutxitan. Egin dugun lan aitzindaria izan da, frogatzea, aurrena animalia esperimentaletan, eta gero iktusa duten pertsonengan, substantzia horien osagarri bat emateak babes-efektu handia izan dezakeela iktusaren ondorioak murrizteko.

(Jarraitzen du)




COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



Oker ez banago, azido urikoa omen da tratamendu horren gako nagusia?

Bai, hala da, tratamenduaren muin nagusia azido urikoz osatuta dago.

Esan al daiteke, beraz, 'Gota' edo Hezueria gaitza eragiten duen azido urikoa ez dela hain kaltegarria?

Esan daiteke, baina kontuz ibili behar da. Azido urikoa iktusa tratatzeko onuragarria da, baina egin beharreko galdera da ea pertsona batek zergatik duen berez, modu espontaneoan, azido uriko altua. Lagungarri izango den adibide bat jarriko dizut: Baliagarria al da suhiltzailea mendian sua itzaltzeko? Erantzuna: Bai. Baina: seinale ona al da mendi bat suhiltzailez beteta egotea? Erantzuna: Ez, sute bat dagoela adierazten du. Urriaren 14an zehatz-mehatz azalduko dut

Urte asko daramatzazu iktusari aurre egiteko sendagai honen inguruan ikertzen. Zein fasetan dago? Zein da zure helburua? Espero duzu merkaturatu ahal izatea? Zer beharko litzateke horretarako?

20 urte daramatzat farmako edo sendagai honetan lanean. Nire helburua ez da txikia: munduko ospitale-farmazia guztietan egotea. Eta bai, osasunak huts egiten ez badit, uste dut merkaturatu ahal izango dudala.

Berrespen-azterketa bakarra egitea falta da, 400 gaixorengan, eta hori gauzatu ahal izateko aukerak baditugula uste dut, baina konfidentzialtasun arrazoiengatik ezin dut dena azaldu.

Lehorreko txantxiku bat

Angel Chamorro ia hogei urtez bizi izan zen Oñatin. Bere aitak mediku kontsulta izan zuen Kale Zaharreko 21 ean, 1956 eta 1978 artean, eta bertan jaio zen Angel 1958an. 1975ean Valladolidera joan zen ikasketak egitera, baina oporretan Oñatira etortzen jarraitu zuen 1978ra arte. Gerora nahi baino gutxiagotan etorri ahal izan da Oñatira, baina bere burua txantxikutzat daukala aitortu digu. "Orain dela gutxi, ekainean, ordu batzuk egon nintzen Oñatin, baina, zoritxarrez, oso gutxi joaten naiz, etxerik ez dudalako eta euskal familia hurbilena Algortan dagoelako. Oñatiko oroitzapenez galdetzen didazu? Gehigarri bat editatu beharko zenuke aldizkarian oroitzapen guztiak sartzeko.

Urte hauetan guztietan (44 urte) beti izan dut Oñatiko eguraldia telefonoan eta askotan esaten dut, begira zein zorte ona duten, gaur euria ari du. Bizi izan naizen leku askotan, euria urria izan da beti. Imajinatu lehorreko txantxiku bat..."

**» ANGEL CHAMORRO**

"Xaguekin egindako azterketean ikusi dugu gure sendagai honekin %80raino murrizten direla iktusak eragindako lesioak"

"Gero eta garbiago dago, airearen kutsadura dagoela iktus sortzaile edo eragile nagusien artean"

Tratamendu hau eraginkorra izan dadin, lehen orduetan (iktusa gertatu eta hurrengo 4-6 orduetan) ematearen garrantzia azpimarratzen duzu. Gaur egun aplikatzen al da ospitaleetan?

Ezin da administratu aurreko baldintza bete arte. Ikerketaren garapen osoa egitea eskatzen digute osasun agintariek.

Zuk esana da, iktusen kausa ohikoenez gain (tabakoa, gizentasuna, hipertentsioa...), iktus-eragile edo sortzaile berri bat dagoela: airearen kutsadura. Zein neurritan? Nola iritsi zarete ondorio horretara?

Datu-base handietako informazioa gurutzatzeak emaitza ukaezinak eskaintzen dizkigu. Eremu geografiko jakin bateko ospitale batean ingresatzen den iktus gaixoen tasa bat dator airean dauden hainbat konposatu kimikoren kontzentrazio mailarekin (karbono monoxidoa, sufre dioxidoa, nitrogeno dioxidoa...) edo mikropartikulen kontzentrazioarekin. Badakigu, gaur airean substantzia horien kontzentrazioan gorakada bat gertatzen bada, bihar ospitale horretan iktusagatik ingresoek gora egingo dutela. Substantzia hauek tronboak sortzeko joera dute. Datu hauek benetan eta serio hartzeko garaia da. ■

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

TARIFA PERFEKTUA: PREZIO BERAGATIK, **GIGA GEHIAGO**

FIBRA 300Mb

+ **MUGIKORRA 30GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

39,90€ /HILEAN
BEZ barne
Linearen kuota
barne.

BETIRAKO

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TELF: 943 090 600



ETA GEHITU
BESTE LERRO BAT 30GB
1€/HILEAN
LEHENENGO 6 HILABETEETAN

BEZa barne Eskaintza 2022/10/31ra arte salmentetarako balio du Fibrá 300Mb-ekin Tarifa PLUS 30GB-ekin kontratú tzean 39,90 €/hileko beste Linearen kuota barne. 131,56ko deskontua 3 hilabeteke egonaldiaren menpeko instalazioan. Tarifa PLUS 30GB PROMO 1 €/hilean 6 hilabetez, gero 8 €/hilean; kontratu bakoitzeko larro bat gehienez. Kontsultatu gainerako baldintzak www.masmovil.es webgunian

MÁSMÓVIL

AHORRA, SIN MÁS

Udal Gizarte Zerbitzuen bulegoak Ramon Irizar plazara aldatu dira

» Bertan egongo dira hurrengo sei hilabeteetan, Bidebarrieta kaleko bulegoak eraberritzeko lanak amaitu bitartean



Udalak Bidebarrieta kaleko 10-12an dituen Gizarte Zerbitzuen bulegoetan eraberritze lanak egin behar dituzte eta, horretarako, zerbitzua lekuz aldatzea erabaki dute, behin-behinean, obrak egin ahal izateko. Ondoko argazkietan ikusten den moduan, Ramon Irizar parkeko galeria-lokalean egokitu dituzte gizarte langileen bulegoak, eta bertan egongo dira 2023ko martxoa edo apirila arte. Behin-behineko lekualdaketa honek ez du eraginik izango udal gizarte zerbitzuen eguneroko jardunean.



EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



Harrera gunea



Herritarrei arreta emateko bulegoak

BEHAR BERRIETARA EGOKITU

Hogei urte igaro dira Udalak Gizarte Zerbitzuen bulegoak Bidebarrieta kaleko 10-12an egokitu zituenetik, eta orduz geroztik garapen handia eman da arlo honetan; gero eta herritar gehiagok jotzen dute gizarte zerbitzuetara, eta, ondorioz, lantaldea bera ere handitu egin behar izan da. Horregatik, Bidebarrieta kaleko gizarte zerbitzuetako bulegoak eraberritzeko unea iritsi dela erabaki du Udalak, egoera eta behar berrietara egokitzeko asmoz.

Espazioari etekin handiagoa ateratzea, herritarrekiko arreta zerbitzuan diskrezioa eta pribatutasuna bermatzea, eta bulegoetako aireztatpena, argitasuna eta klimatizazioa optimizatzea eta, bide batez, energia aurrezteko da Bidebarrieta kaleko bulegoetan egingo diren berritze lanen helburuetako batzuk.

Aitziber Izura arkitekto teknikoak idatzitako proiektuaren arabera egingo dira lanak 283.163 euroko aurrekontuarekin, eta 23 asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko. Beraz, dena ondo bidean, datorren urteko martxoan edo apirilera egongo dira prest bulego berriak.

ALDI BATERAKO BULEGOAK

Bidebarrieta kaleko bulegoak eraberritu bitartean, udal

GIZARTE ZERBITZUAK OÑATIKO UDALA

- Orduetgia:
9:00-14:00
- Astelehenetik ostiralera
Asteazkenetan itxita
- Txandak eta
informazioa:
- 943 037 700
- ongizatea@onati.eus

Gizarte Zerbitzuak Atzeko Kaleko 6 zenbakiko galeria-lokalean (Ramon Irizar parkeketik du sarrera) egokitu ditu Udalak, oinarrizko egokitza-pen lanak eginda.

108m²-ko azalera du lokalak eta bi gune prestatu dituzte bertan: herritarrei zuzeneko arreta emateko bi bulego, alde batetik, eta gizarte langileentzako gunea, bestetik. "Herri erdigunean dago lokala, leku diskretuan, eta irisgarritasuna ere bermatuta dago. Beraz, behar bezalako zerbitzua emateko moduan gaude", adierazi digu udal Gizarte Zerbitzuetako arduradun Itxaro Leibarrek.

Zerbitzuaren aldi baterako lekualdatzeak ez du eraginik izango Gizarte Zerbitzuen eguneroko jardunean, eta herritarrei begira orain arteko ordutegi bera mantenduko dute: astelehenetik ostiralera (9:00-14:00), asteazkenetan izan ezik. ■



Gizarte langileen lan gunea

la 300 herritarrek jotzen dute hilero Gizarte Zerbitzuetara

Sarrerakoan esan dugun moduan, Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemak garapen handia bizi izan du azken urteotan, eta gero eta gehiago dira bertara informazio eta laguntza eske jotzen duten herritarrak. Iaz, adibidez, batzaz beste 269 herritar gerturatu ziren, hilero, Oñatiko gizarte zerbitzuetara, eta aurtengo maiatzean 310 herritar. Horrez gain, hilean 550 telefono dei atenditzen dituzte, batzaz beste.

Izan ere, ez da ahaztu behar Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarrerako atea direla tokian tokiko gizarte zerbitzuak, eta bertara jo behar dugula euskal sistemak eskaintzen dituen zerbitzu edo prestazioak eskuratu ahal izateko: ezgaitasun edo menpekotasunen inguruko balorazioa egiteko; etxez-etxe laguntza zerbitzua eskatzeko, gizarte larrialdietarako laguntzak eskatzeko, zaharren egoitzara edo eguneko zentrorra joan ahal izateko, tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntzak aktibatzeke...

Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeak finkatzen du zein diren administrazio bakoitzaren betebeharrak, eta bere eskumenekoak diren kasuetan zuzeneko laguntza ematen dute Oñatiko udal gizarte zerbitzuetan, eta, bestela, dagokion administrazioa (Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritza) bideratzen dute. ■



Echaide eraikuntza enpresak egingo ditu Lezesarriko oinezkoen bidea egokitzeko lanak

Urriko lehen hamabostaldian hasiko dira lanak

Lizitazio aurrekontua jasota, bigarren deialdian esleitu ditu Udalak Lezesarriko oinezkoen bidea egokitzeko lanak, Echaide eraikuntza enpresaren alde, 301.572 eurotan. Gogoratu, Azkoagain parean hasi eta Urrintxo jatetxeko aparkaleku sarrerarainoko tartean egokitzeko dela oinezkoentzako ibilbidea, Sestra ingenieritza enpresak idatzitako proiektuaren arabera.

Azkoagaintik Lezesarriko ermitarako sarbide parerainokoa, jaisteko erraiaren alboan egokitzeko da. Ermitarako sarbide parean, galtzada gurutzatzeko pasabidea egokitzeko da eta, hortik gora, Urrintxoko aparkaleku parerainoko tartean, eskumako erraiaren alboan eratuko da oinezkoentzako ibilbidea.

Lanak egiteko hiru hilabeteko epea aurreikusten da eta, beraz, urtea amaitu baino lehen amaituta egotea espero da.

Auto aparkaleku berria egingo da Errekalden, espazioaren berrantolatzeari jarraipena emanez

Errekalde auzoan auto aparkaleku gune berri bat egiteko lanean dabil Oñatiko Udala. Bada, auzoan zenbait aldaketa egin dira azken hilabeteotan, irisgarritasuna eta segurtasuna erdigunean, espazioen erabilera berrantolatuz. Tartean, bizikleten eta patineteen aparkalekuak jarri dira Urgain eskola aurrean, eskola atarian zegoen autoen aparkalekuaren ordean. Orain, autoen aparkaleku hori lekuz aldatzeko dabil lanean. Hain zuzen ere, auzoko 29, 31 eta 33 atarien atzealdean auto aparkaleku gune berria egiteko proiektua eskatu dio A2B arkitekтура estudioari.

9 AUTORENTZAKO

Behinik behin, bederatzi autorentzako lekua izango luke aparkalekuak. "Espazioaren berrantolaketa murgildurik, auzotarren beharrak erdigunean, balizko aukeren diagnostikoarekin jardun du azken hilabeteetan Oñatiko Udalak. 29. 31 eta 33 atarien atzealdekoa da diagnosiak identifikatu duen aukera egokiena", azaldu dute udaletik. Aurreikuspenen arabera, 70.000 euroko inbertsioa eskatuko luke esku hartze berriak, eta lanok gauzatzeko esleipena epe laburrean abiaraztea espero da.

Azaroan egingo da Partaidetzako Aurrekontuen bozketa fasea

Momentu honetan bideragarritasun fasea ixten ari da Udala. Lehen fasea gainditu duten 54 proposamenak teknikoki, juridikoki eta ekonomikoki baloratzen, hain zuzen. Lehen galbahe hori mahai politikoak egin bazuen ere, maila teknikoan berretsi behar dira orain.

Bideragarritasun tekniko gaitzen duten proposamenek proiektu izaera hartuko dute, eta azaroan irekiko da 500.000 euro zein proiektutara bideratzeko herritarrek bozkatzeko aukera. Hurrengo hilean jakinaraziko ditu Udalak bozka faseko baldintzak (epeak, bideak...).

Motorrentzako aparkalekua egokitu du Udalak Euskadi etorbidean

Bizilagunek egindako eskaera bati erantzunez, motorrentzako aparkalekua egokitu du Udalak Euskadi etorbidea eta Kurtzebide arteko bidegurutzearan. Izan ere, Kurtzbidetik Euskadi etorbidera sartzeko unean gidariek zailtasunak izaten zituzten Bidaurreta aldetik zetozen ibilgailuak ikusteko, bereziki bizikletak, eta istripu arriskua murriztearen, bidegurutze ondoko aparkalekua motorrentzat gordetzea erabaki da, ondoko irudian ikusten den moduan. Herriko beste gune batzuetan ere, ikuspen mugatua duten guneetan, bereziki, antzerako aparkaleku gehiago egokitzeko asmoa du Udalak.



'BERTAKOAK' APARKATZEKO TXARTELA

2023ko alta eta bajak tramitatzeko epea urriaren 10etik azaroaren 2ra irekiko da



Datorren urtera begira 'BERTAKOAK' aparkatzeko txartela eskatu edo ezeztatu nahi duten herritarrek urriaren 10etik azaroaren 2ra arteko epea izango dute eskaerak egiteko, udaletxeko HAZ bulegoan, aurrez txanda hartuta. Aurten 'Bertakoak' txartela duten herritarrei automatikoki berrituko zaie, kontrakoa adierazi ezean.

Trafiko zuzendaritza nagusian behean zehazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuen jabeek eskuratu ahal izango dute 'Bertakoak' txartela, baldin eta jabea ibilgailuaren helbide berean erroldatuta baldin badago.

► **Zona 5 Gunea (AITA MORTARA):** Kale Zaharra 1-29 eta 2-48, San Anton, Aita Madina, Aita Mortara, Foruen plaza, Portu kalea, Unibertsitate etorbidea, Maiatzaren 1. plaza, Bakardadeko Ama eta Zumeltzegi kalea.

► **Zona 6 Gunea (BIDEBARRIETA):** Bidebarrieta kalea, Zubibarri, Motxon, Atzeko Kale, Kale Barria, Errementari, Ramon Irizar eta Aozaratza.

Urriaren lehen hamabostaldian hasiko dira GI-2630 errepideko zorua birgaitzeko lanak, Madalena eta Elorregi artean

Foru Aldundiak jakinarazi duenez, hil honen lehen hamabostaldian hasiko dira GI-2630 errepideko zorua birgaitzeko lanak, Fagor Industrialeko aparkalekua eta Elorregiko biribilgunea arteko tartean, aipatutako errepideko 20'100 eta 23'474 kilometro puntuen artean.

Zorua sendotu aurretik zoladura konponduko dute 390m² inguruko azalera, fresatu eta beroan egindako AC22bin S motako nahasketa bituminosoa zabalduz, 5 zm.-ko lodierako geruzan. Ondoren, errodadura-geruza berrituko dute tarte osoan. Santxolopeztegi eta Osinurdingo biribilguneetan guztiz berrituko da bide-zorua.

Lan batzuk gabaz eta asteburuetan egingo dituzte, trafikoari ahalik eta gutxien eragiteko

Segurtasun hesiaren zenbait zati birjartzea ere aurreikusten da; guztira, 37,20 metroko luzera izango ditu petrilak ordezkatzeko dituen hormigoizko hesiak, eta 107 metro metalezko hesiak. Lanak 620.954 eurotan esleitu ditu Foru Aldundiak, eta hilabete

eta erdiko epea aurreikusten da lanak burutzeko.

TRAFIKOAN ERAGINA

Trafiko dentsitate handiko errepidea da Oñati eta Elorregi artekoa (10.000 ibilgailutik gorako IMD-a, horietatik %13 ibilgailu astunak), bereziki lantegien sarrera-irteera orduetan, eta, beraz, neurri bereziak hartuko dira, zorua berritzeko lanek ahalik eta eragin txikiena izan dezaten trafikoan. Hala, lan batzuk gauz egitea aurreikusten da, eta beste batzuk asteburuetan, eta egun jakin batzuetan Zubillagako errepide zaharretik desbideratuz norabideetako bat.

Oñatiko Nagusien Gunea sortzeko aurre-diagnostikoa egiten ari da Udala

Orain artean herriko nagusiei begirako aldiak aldiko dinamikak bultzatu izan ditu Udalak, baina, orain, herri mailako espazio edo foro iraunkor bat sortzeko beharrik antzematen ote den, eta, hala balitz, zelakoa izan beharko lukeen jakiteko aurre-diagnostikoa egiten ari da Udala, foro edo gune horretako erabiltzaile izango liratekeen herritarren ekarpenak eta euren beharrak ezagutzeko.

Zahartze aktiboa sustatzeko prozesuetan aditua den Bizipoz kooperatiba ari da aurre-diagnostikoa osatzen. Herri mailan erreferentziatzekoak izan daitezkeen pertsonak, eragileak eta erakundeak identifikatuta, haiekin elkartu eta nagusien gunaren inguruko hausnarketa egiten ari dira. Dagoeneko, 65 urtetik gorako 50 bat herritar elkarrizketatu dituzte. Gaur egun, oñatiarren %24tik gora dira 65 urtetik gorakoak.

Goxara enpresari esleitu dio Udalak Oñatiko etxez-etxe laguntza zerbitzua

Lehiaketara aurkeztu ziren lau enpresen proposamenak baloratu ostean, Beasainen egoitza duen Goxara enpresari esleitu dio Udalak Oñatiko etxez-etxe laguntza zerbitzua. Bi urterako kontratua sinatu dute, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Etxez etxe zerbitzua ezintasun maila ezberdina duten herritarrei eskaintzen zaie, beraien etxeetan bizitzen jarraitu ahal izan dezaten. Egun 77 bat herritar eta familiak jasotzen dute Oñatin, eta 30 bat langilek dihardute zeregin horretan.

JABETZE ESKOLA ²⁰²²⁻²⁰²³

emakumeen ahalduntze prozesuan eragiten jarraitzeko



- » Izen-emate epe bakarra egongo da aurten, eta urriaren 23a da Jabetze Eskolako ikastaro-tailerretan izena emateko azken eguna
- » Udalak dei egiten die emakumeei Jabetze Eskolara gerturatu daitezen
- » Aurten gizonei zuzendutako tailer bat ere egongo da, parekidetasunerantz urratsak eman nahi dituztenentzat

Abian da aurten ere udaleko Berdintasun sailak antolatzen duen JABETZE ESKOLA. Topagunerako, eztabaidarako, formaziorako eta sartzeko espazioa izan nahi du Jabetze Eskolak, emakumeen eskubideez jabetzeko, kezka eta ondorez partekatzeko, autonomia eta konfiantza lantzeko, eta emakumeen arteko sareak sortzen laguntzeko.

Azken batean, indarkeriarik gabeko bizitzak askatasunez bizitzea da helburua, eta horretan eragin nahi du Jabetze Eskolak, emakumeen ahalduntze prozesuan eraginez, maila guztietan. Beraz, Udalak dei egiten die herriko emakume guztiei Jabetze Eskolara gerturatu daitezen.

Egun hauetan etxe guztietara banatuko den egitarauan ikus daitekeen moduan, bete-betea dator aurten ere Jabetze Eskola. Zortzi ikastaro-tailer eskaintzen dira: **'Yoga emakumeentzat'**, **'Zoru pelbikoaren indartzea'**, **'Arrazakeriaren aurkako genealogia feministak'**, **'Alternatiba ekofeministak eraikitzen'**, **'Amatasunaren inguruko hausnarketa, ikuspegi feminista ea intersektional batetik'**, **'Autodefentsa feminista'**, **'Noka'** eta **'Mendi orientazioa'**.

Gainera, 'ESKOLA FEMINISTA IRAUNKORRA' ere egongo da. Hilean saio bat egingo da feminismoaren gaineko hausnarketa egiteko eta elkarrengandik ikasteko.

Bestalde, 14 eta 20 urte arteko neska gazteen elkargune bat sortzeko saioa ere egingo da, beraien interes eta beharren araberrako gaiak lantzeko ikuspegi feminista batetik. Horretarako, azaroaren 7an Gaztelekuan (18:00) egingo den saioan parte hartzera dei egiten zaie.

'GIZONAK FEMINISMORANTZ'

Aurten, berritasun moduan, gizonei zuzendutako tailer bat ere antolatu da Jabetze Eskolaren baitan. Feminismoaren aldarriekin bat egin eta parekidetasunerantz pausuak eman nahi dituzten gizonei zuzendutako tailerra izango da.

IZENA EMATEKO EPE BAKARRA

Izen-emateari dagokionez ere bada berritasunik aurten, izan ere izen-emate epe bakarra egongo baita, eta, hala, urriaren 23a izango da 2022-2023 ikasturteko Jabetze Eskolako ikastaro-tailerretan izena emateko azken eguna, udaletxeko HAZ zerbitzuan orria beteta, edo www.oñati.eus webguneko formularioa beteta. ■

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI





Emakumion etxia eraikitzen

PARTE-HARTZE PROZESUA

CONSTRUYENDO LA CASA DE LAS MUJERES • PROCESO PARTICIPATIVO

Topaketa *Encuentro*

Urriak 19 *octubre*
Eltziako topagunean *en Eltzia*
18:00etan *a las 18:00*

zatoz!
¡ánimate!



OÑATI
dabilen herria

 **Aldibereko itzulpena egongo da.**
Habrà traducción simultànea.

 **Zaintza zerbitzua behar baduzu, idatziguzu:**
berdintasuna@onati.eus
Si necesitas servicio de guarderìa escribenos:
berdintasuna@onati.eus

EROSKETA BONUEN kanpaina berria jarri du abian Udalak

► 15.000 euro emango ditu bonotan

Diruz lagundutako erosketa bonuen kanpaina berria jarriko du Udalak hile honetan. Aurtengo bigarrena. Lehenengoa maiatzean izan zen, 15.000 €-ko aurrekontuarekin, eta orain beste 15.000 € (gehi udaberriaren agortu gabeko 4.768 €) ipiniko ditu herritarren eskura, erosketa bono bidez.

Herritarrek **urriaren 5etik azaroaren 30era** arteko epea izango dute erosketa bonuak eskuratzeko. Ohi bezala, bi modu edo bide egongo dira horretarako, online eta offline. Bonuak online erosi nahi dituenak **onati.bonoak.eus** web aplikazioan alta eman beharko da, eta bertan aukeratu erosketa egingo den saltokia eta bonuaren zenbatekoa.

Bestela, erosketa egin nahi den saltokian bertan ere eskuratu ahal izango dira bonuak. Erosi nahi den produktua edo zerbitzua eskuratu eta saltzailearen bitartez aukeratu beharko da bonuaren zenbatekoa **onati.bonua.eus** aplikazioan.

%20ko DESKONTUA

Pertsona bakoitzak gehienez 50€ eskuratu ahal izango ditu bonuetan, eta erositako bonuei %20ko deskontua aplikatuko zaie; hau da, 50€-ko bonu batek 40€-ko kostua izango du. Bonuak kontsumitzeko epea **abenduaren 2ra arte** luzatuko da.

Tokiko komertzio, ostatu eta zerbitzuetan kontsu-mitzearen garrantziaz sentsibilizatzea, eta kontsumo arduratsua sustatzea da kanpaina honen helburua. Bi kanpainak batuz, maiatzekoa eta urrikoa, guztira 150.000 €-ko kontsumoa sustatzea da helburua.

► **Urriaren 5etik azaroaren 30era bitartean erosi ahal izango dira bonuak, eta abenduaren 2ra arteko epea egongo da kontsumitzeko**

► **Pertsona bakoitzak 50 € eskuratu ahal izango ditu gehienez bonuetan**

Haragi sektorean lan egiteko ikastaroa emango du HAZIk Oñatin, langabetuei zuzenduta



'Animaliak hiltzea, prestatzea eta zatikatzea' ikastaroa eskainiko du HAZIk Oñatin, Udalaren eta Zubillagako hiltegiarekin elkarlanean. Langabezia dau den pertsonak haragiaren sektorean lan egiteko gaitzea da helburua.

180 orduko iraupena izango du ikastaroak, eta animaliak hiltzen, prestatzen eta janarien manipulazioa nola egin ikasiko da, hiltegiatiko ingurune segurtasun eta babes neurriak lantzearekin batera

Ikastaroa Oñatin emango da, urritik abendura (9:00-14:00). Saio teoriko-praktikoak eta bisita teknikoak uztartuko dira. Izen-ematea eta informazioa: enplegu@onati.eus / 943003198

Etxeko zaintza sektorean aritzeko profesionaltasun ziurtagiria lortzeko ikastaroa emango da Oñatin

Oñatiko Udalak, Elkarzabal Integrazioarako Elkartearekin eta SSI taldearekin elkarlanean, MENTSAD programa jarriko du martxan urritik aurrera. Etxean dauden pertsonentzako arreta soziosanitarioko profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza ikastaroa da.

Etxeko zaintza lanetan dagoneko ari direnentzat propio diseinatutako programa da MENTSAD, aurrez aurreko talde-saioak larunbatetan egiten direlako, eta bestelako materiala, astean zehar, bakoitzak ahal duen tartean egiteko prestatu delako. Aurrez aurreko saioak larunbat arratsaldetan (15:30-19:30) izango dira. Guztira 23 saio.

Batez ere atzerriartasun-egoera erregularizatuta duten pertsonen zuzendutako ikastaroa da, eta helburu bikoitza du: Enplegagarritasuna handitzea eta hobetzea (lan-merkatu zabalago batean eta lan baldintza duinetan aritzeko aukera ematea), eta ematen duten zerbitzuaren kalitatea hobetzea. Informazioa eta izen-ematea: enplegu@onati.eus / 943 003 198 / 667 450 444 (Elkarzabal).



Autoformazioa eta saio presentzialak (larunbatetan) tartekatzen ditu ikastaroak

IBAILAGUN

X. JARDUNALDIAK

URRIAK 11-18

Deba ibaian hainbat presa eraistea aurreikusten duen Merlin programa ezagutzeko aukera egongo da

► Oñatiko Garibai, San Pedro eta Zubillaga presen inguruan Foru Aldundiak dituen asmoen berri ere azalduko da ► Zentralera urak bideratzeko Araotz eta Olate arteko azpiegiturak ikusteko ibilaldia ere egingo da

X. IBAILAGUN jardunaldiak antolatu ditu udaleko Ingurumen sailak, Natur Eskolarekin elkarlanean. Gure erreken eta gordetzen duten bioaniztasunaren garrantzia ezagutzera ematea eta hauen babesarekiko sentsibilizazioa herritarren artean piztea da jardunaldion helburua. Horretarako, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako.

URRIAK 11, ASTEARTEA, Kultur etxean, 19:00

'Oñatiko errekek hobetzeko plana eta tailerra'

- HIZLARIAK:

- Foru Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako saila
- Joxerra Díez (biologoa, EHUko irakaslea)



Garibai Errota izeneko presa, XIX. mendekoa

Ibaiak eta hezeguneak biologikoki lehengoratzea helburu duen MERLIN (Mainstreaming Ecological Restoration of freshwater-related ecosystems in a Landscape context) egitasmo europarraren nondik norakoak ezagutzeko aukera izango dugu Ibailagun jardunaldietako lehen saioan.

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea elkarlanean ari dira Merlin egitasmoa Deba ibaian inplementatzeko eta, bestek beste, Deba ibaian aktiboan ez dauden hamar presa eraistea aurreikusten da, erreken konektagarritasuna bermatzeko, uholde arriskua arintzeko, eta ibaian osasuna hobetzeko asmoz.

Merlin proiektutik kanpo bada ere, Oñati eta Arantzazu erreken ibilguan dauden hiru presatan (Garibai Errota, San Pedro eta Zubillaga izenekoak) esku hartzea da Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako sailaren asmoa, eta horren berri ere emango da hitzaldian.



URRIAK 16, DOMEKA, 8:30

'Olateko indarretxeak 100 urte' Ibilaldia, Araotzetik Olatera




Natur Eskolako kideek gidatuta, Araotz eta Olate arteko ibilaldia egingo da, urak indarretxera eramateko azpiegiturak ikusteko. Hitzordua goizeko 8:30etan izango da, San Lorentzoko geltokian, Oñati-Arantzazu autobus zerbitzuan igotzeko.

URRIAK 18, ASTEARTEA, Kultur etxean, 19:00

'Monopolia: agua, negocio y poder político' dokumentala

Ura, negozioa eta botere politikoa. Hiru kontzeptu horiek uztartzen direnean sortzen den monopolioari buruzko dokumentala egin du Ecoperiodismo taldeak. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kasua aztertzen du, eta Busturialdeko Ur Partzuergoaren integrazioa ere jorratzen du.



"Herritar guztiak eta, bereziki, entitateak animatu nahi ditugu Euskaraldian parte hartzera"

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da **III. Euskaraldia** eta izen-ematea zabalik dago

Herriko jaiak atzean utzita, Euskaraldira begira jartzeko unea iritsi da. Berau antolatuta eta girotzeaz arduratuko den herri-batzordea lanean hasita dago, eta berau koordinatzen ari den Maddi Txintxurretak eman digu aurtengo edizioaren inguruko berri.

Gogora dezagun, Maddi, zer den Euskaraldia.

Bi urtetik behin egiten den ariketa kolektiboa da, gure hizkuntza ohituretan eragin eta euskararen erabilera handitzea helburu duena.

Bi aukera edo modu daude Euskaraldian parte hartzeko: norbanako gisa (*Ahobizi* edo *Belarriprest* rola hartuta), edo entitate bezala, *Ariguneak* sortuz.

Duela bi urte 3.000 inguru oñatiarrek eta herriko 30 entitatek parte hartu zuten Euskaraldian. Aurten ahalgin berezia egin nahi duzue entitateen parte hartzea areagotzeko. Zein entitate motaz ari gara, eta zer eskatzen zaie?

Mota guztietako entitateek parte har dezakete (erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, komertzioak, kultur



eta kirol elkarteak...) *Arigune* bat sortzen badute.

Ariguneak izan daitezke barrura begirakoak, hau da, entitate barruan ohiko dinamika duten kideek sortutakoa (sailak, sekzioak, ekipoak, zerbitzuak...). Halakoetan, kide guztiek gutxienez ulertu egin behar dute euskara, eta modu kolektiboan gauzatuko dute ariketa, uneoro euskaraz aritzeko aukera bermatuz.

Edo izan daiteke kanpora begirako *Arigunea*, entitate horrek herritarrekiko duen harreman espazioan (harrera postuak, dendariak, tabernariak...). Kasu hauetan bermatu behar da herritarrekiko harremanean beti egongo

Maddi Txintxurreta, Euskaraldiko dinamizatzailea Oñatin

GOGOAN HARTZEKOAK

- EUSKARALDIAREN OÑATIKO BULEGOA asteazkenetan egongo da zabalik (18:00-20:00) Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18)
- Harremanetarako:
 - 688 679 304
 - onati@euskaraldia.eus
 - @onatikoeuskaraldia (Instagram)
- <https://euskaraldia.eus>

dela *Belarriprest* edo *Ahobizi* bat; hau da, herritarrei uneoro zerbitzua euskaraz emango dietela bermatu behar dute.

Garrantzitsua da entitateek Euskaraldian parte hartzea, euskaraz aritzeko aukerak biderkatu egiten direlako. Entitateren batek ez baditu *Arigunea* sortzeko baldintzak betetzen, baina hurrengo edizioetara begira urratsak ematen hasi nahi badu, proposamenak egingo zaizkio.

Norbanako gisa ere parte har daiteke Euskaraldian.

Bai, noski, *Belarriprest* edo *Ahobizi* rola hartuta, orain arte bezala. *Ahobiziak* euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten du uneoro. *Belarriprest* banaiz, euskaraz dakitenek niri euskaraz egitea eskatuko dut.

Ahobizi edo *Belarriprest* izateak jokaerarekin du zerikusia, euskaraz egiteko gaitasunarekin baino gehiago. Jarrera aktiboa edukitzea eta euskarazko elkarrizketak sortzen laguntzea da helburua.

Nola eman daiteke izena?

Aurreko edizioetan parte hartu duten entitate eta herritarrek mezu bat jasoko dute, zuzenean. Lehen aldiz izena eman nahi dutenek <https://euskaraldia.eus> webgunean egin dezakete, edo, bestela, Oñatiko bulegora etorri eta geuk lagunduko diegu. Gogoratu, 16 urtetik gorakoek bakarrik parte har dezaketela Euskaraldian.

Animatuta ikusten al duzu jendea?

Bai, herriko entitateekin ere hainbat bilera egin ditugu eta jendea Euskaraldian parte hartzeko gogoz dago. Aurreko edizioen ostean egin diren azterketek erakusten dute Euskaraldian zehar hartutako hizkuntza-ohiturak egonkortu egiten direla kasu askotan eta, beraz, inportantea da parte hartzea.

EUSKARALDIARI KANTATUTAKO BERTSOAK

Arantzazu Sagarzazu eta Hide Dohino japoniarrek sortutako bertsoak
Doinua: Mundu hau uzten bazun/Maisu, Ruanda zer da

ARAN ZURETZAT ZER DA
BA, EUSKARALDIA?
HERRI TXIKI BATENTZAT
ERRONKA HANDIA.
BOTA BEHARKO DUGU
HIDE, IZERDIA.
BAÑA_EGITEN BADUGU
ZURE LAN ERDIA
AHOBIZIZ BETEKO
DA MAPAMUNDIA.

ONDO EDOTA GAIZKI
BAZABILTZA, AUPA!
ESAZU HITZ BAT ETA
JARRI ZURE TXAPA
TA HORI IZANGO DA
LEHENENGO TXANPA
HAURRAK OINEZ BEZALA
HASI TIPI-TAPA
IKASTEKO BIDEA
HOLAN HASTEN DA-TA.

BATZUK HITZ EGIN ETA
BESTE BATZUK ENTZUN
DENOK BELARRIKIDE
ETA BERBALAGUN
INOIZ EZ DA BERANDU
INON EZ DA URRUN
TA_INORENTZAT EZ DADIN
IZAN EZEZAGUN
URRUTI DAGOENA
HURBILDU DEZAGUN.

NOLA IZAN DAITEKE
NORBAIT_AHOBIZIA?
HORTARAKO BEHAR DA
DENBORA LUZIA
KOMENI DA SARRITAN
KALERA FATIA
ETA LAGUN ARTIAN
TRAGO BAT HARTZIA
ONDO ETORRIKO DA
ZUEN PAZIENTZIA.

ETA BESTE HAMAIKA
TRAGOREN ONDOREN
LOTSA GALTZEN DUGU TA
GABILTZA ONDOEN
AUSKALO MOZKOR BATEK
ZE_IKASIKO DUEN
HURRENGO EGUNEAN
ZER GERTATUKO DEN
EA BIXAMONAKIN
GOGORATZEN GAREN.

EUSKARA BIZIKO DA
TA EZ EGIN NEGAR
TERAPIA EGITEN
HAS GAITEZEN BIHAR
HAMABOST EGUNETAN
EUTSI EGIN BEHAR
BESTE HIRUREHUN TA
BERROGEITAHAMAR
ETA BESTE MILAKA
URTEETAN ZEHAR.



Urriaren 8an Donostiara joateko deia luzatu du Sarek

'**Ettxera bidea gertu!**' lelopean, preso eta iheslarien alde urriaren 8an Donostian egingo den mobilizazio-jaialdian parte hartzera deitu du Oñatiko Sarek. "Poliki-poliki ari gara bidea egiten, bidea egin dugu, gainditu ditugu mugari batzuk. Gaur, herria, etxea, senideak, lagunak gertuago ditugu. Zorionez, Joseba Martutenen 3. graduari dago, eta Gotzon ere Zaballan dago. Agur Alicante, agur Extremera. Azkenean dispersioa oñatiarren kasuan bukatu da!", adierazi zuten, irailaren 24an Oñatin egindako girotze ekitaldian. "Baina gertu egotetik, bertan, etxean egoteko bidea egin nahi dugu, eta egin behar dugu, salbuespen egoerarekin amaitu arte. Faltan den bide-tarte hori ere elkarrekin egingo dugu. Joseba, Gotzon eta gainerako denak etxera ekarriko ditugu". Informazio gehiago: <https://sare.eus/urriak-8>



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



▲ **Ludikotasuna** da AUZOKOren oinarria. Mahai-jokoak, tailerrak, kantak eta herriko eragile ezberdinekin (Oñatz, natur eskola, Ilunpetan, Gure Bazterrak, Bargastak...) antolatutako ekintza bereziak baliatzen dituzte **Auzokide** eta **Auzotarren** arteko zubiak eraiki, harreman sareak zabaldu eta euskararako bidea egiten laguntzeko

AUZOKO

Jatorri ezberdineko pertsonak euskarara hurbiltzea helburu duen programa urriaren erdialdera jarriko da martxan

Oñatiko Udalak eta Txatxilipurdi elkarteak antolatuta, urriaren erdialdera jarriko da martxan aurten ere **AUZOKO** programa. Euskaratik urrun dauden herritarrei euskarara hurbiltzeko bidea egiten laguntzea da helburua; jatorri ezberdinetako herritarrak euskarara gerturatzea eta, bide batez, herrian integratzen laguntzea, pertsona horien hizkuntzak eta kultur aniztasuna errespetatuz eta balioan jarriz, beti ere.

AUZOKIDEAK ETA AUZOTARRAK

Bi hanka edo osagai nagusi ditu **Auzoko** programak: alde batetik **AUZOKIDEAK** daude, euskarara hurbildu nahi duten herritarrak. Normalean, kanpotik etorritako pertsonak izaten dira, baina bertakoak ere izan daitezke. Eta bestetik **AUZOTARRAK**, euskal hiztunak; *Auzokide*-ei euskararako bidea egiten laguntzen dieten herritarrak.

Astean behin elkartzen dira ordu eta erdiz, ekintza ludikoen bidez (mahai-jokoak, tailerrak, kantak...) elkarren arteko zubiak eraiki eta euskararen mundua deskubritzen eta maitatzen laguntzeko helburuarekin.

Esan beharrik ere ez dago, euskal hiztunen parte hartzea ere oso garrantzitsua dela **Auzokon**. Ez du dedikazio handirik eskatzen (astean ordubete), eta euskarara hurbiltzeko ahalegina egin nahi duten pertsonentzat oso garrantzitsua da harreman sareak zabaltea herritarren artean. Horregatik, dei egiten zaie euskal herritarrei ere **Auzokon** parte hartzera.

Gero eta gehiago dira etorkinak gure artean eta, beraz, gero eta beharrezkoak dira **Auzoko** bezalako egitasmoak gure herrira iritsi eta euskarara hurbiltzea erabakitzen duten herritarrei hizkuntza-harrera egin eta integratzen laguntzeko.

Urriaren 19an egingo da Auzoko programaren aurkezpena Eltzian, 19:00etan
Informazioa eta izen-ematea: onatiauzoko@gmail.com / 688651205



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIENTAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...






DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



» MIREN ZUBIA

AUZOKO programaren koordinatzaile eta dinamizatzailea

"Euskal hiztunak ere animatu nahi ditut Auzokon parte hartzera"

Mire Zubia Markuleta (Oñati, 1997) izango da aurten ere Auzoko programaren dinamizatzailea. Urte eta erdi darama zeregin horretan, eta gustura dago esperientziarekin, ikasturte berriari ekiteko gogoz. "Poliki poliki materiala sortuz joan naiz eta, dagoeneko, **Auzokori** nire ukitua ematea lortu dut. Jolas dinamikoak antolatzen ahalegintzen naiz, euskararekiko lehen hurbilpen hori atseginagoa eta dibertigarria izan dadin".

Euskara ez izatea arrotza; horrixek da Auzokoren helburua, hizkuntzari dagokionez. "Egunerokoan erabiltzen ditugun hitzak eta elkarrizketa motzak lantzen ditugu", azaldu digu Zubiak. "Hilero hiztegi eta hizkuntza-egitura jakin batzuk lantzen ditugu, eta hile bukaeran ekintza berezi bat egiten dugu, ikasitakoarekin lotura duena. Iaz, adibidez, Oñatz dantza taldearen entsegu batean izan ginen, gorputz atalak eta 'aurrera, atzera, ezkerrera' bezalako kontzeptuak lantzeko".

Oñatz dantza taldearekin ez ezik, Natur Eskola, Ilunpetan, Bargastak edo Gure Bazterrak bezalako taldeekin ere egin izan dituzte ekintza ezberdinak. "Euskarara hurbiltzeaz gain, herrian integratzen laguntzea ere bada **Auzokoren** helburua eta, beraz, interesgarria iruditzen zait herriko eragile ezberdinekin elkarlanean aritzea, harreman sareak zabaldu eta herrian dauden dinamika ezberdinen berri izan dezaten", dio Zubiak.

Iazko ikasturtean 48 lagunek (45 **Auzokide** eta 3 **Auzotar**) parte hartu zuten **Auzokon**, eta aurten ere animatu egin nahi du jendea bertan parte hartzera. "Iazko ordutegi bera mantentzen saiatuko gara, baina izena ematen dutenen artean erabakiko dugu. Batzuek ezin izaten dute saio guztietara etorri, baina ez daitezela kezkatu horregatik. Malgutasunez jokatzeko dugu. Etor daitezela saio batera, probatzera, inongo konpromiso barik".

Euskal hiztunei ere dei berezia egin nahi die Zubiak. "Bai, ez du dedikazio handirik eskatzen (asteen ordubete), eta euskarara hurbiltzeko ahalegina egin nahi duten pertsonentzat oso garrantzitsua da euskal hiztunekiko harreman sarea zabaltzea. Gainera, euskal hiztunontzat ere oso aberasgarria da Auzoko, jatorri, kultura eta hizkuntza ezberdineko jendea ezagutzeko aukera ematen baitu. Beraz, animatu!" (Harremanetarako: onatiauzoko@gmail.com /688651205).

» ANGIE MENESES
Kolonbiarra

"Asko gustatu zait Auzoko-ren dinamika"

Urtarrilean hasi zen lanean Oñatin, eta lagun baten bidez izan zuen **Auzoko**-ren berri. "Klase formalak izan barik, euskarara modu dinamikoagoan hurbiltzeko programa bat zela esan zidan eta, egia esan, asko gustatu zait. Ez du lotura handiegirik eskatzen (asteen ordubete), eta ordutegia ere oso ondo datorkit. Beraz, saiatzen naiz ez hutsik egiten", azaldu digu Menesesek.

Gustura dago kolonbiarra orain arteko esperientziarekin. "Bai, irakaslea ere oso atsegin da eta ahalegin handia egiten du aktibitate ezberdinak antolatzen, eta gure artean giro ona egon dadin".

Emakume bat zaintzen lan egiten du Menesesek, eta harekin praktikatzeko du **Auzokon** ikasitako euskara. "Bai, batua eta Oñatikoaren arteko zubia egiten laguntzen dit berak".

Euskaltegiak antolatu duen zaintzaileentzako ikastaroan ere eman du izena Angiek, baina **Auzokon** jarraitzeko asmoa du, bateragarriak baldin badira. "Bai, eta animatu nahi nuke jendea **Auzokon** parte hartzera, oso dinamiko delako, sozializatzeko bidea ematen duelako, eta oinarrizko euskara ikasteko aukera ematen duelako".

"Azken batean, Euskal Herrian gaude, eta hemengo ohitura, kultura eta hizkuntzara ohitu behar dugu", gaineratu du Manisesek; "Nik zaintzen dudana emakumeak animatu egiten nau euskara ikastera, eta, gainera, konturatu naiz herriko dendetan-eta asko baloratzen dutela euskara ikasteko egiten dugun ahalegina".

Ikasturte berria abian Txaloka ludotekan

IZEN-EMATEA ZABALIK DAGO KURTSOAN ZEHAR

Irailean egin zituzten herrira begirako ekintza berezien eta ate-irekien egunen ondoren, urriaren 5ean jarri da martxan ikasturte berria Txaloka ludotekan. Kurtsoa abian da, bai, baina izena emateko aukera zabalik egongo da aurrerantzean ere. Ikasturte osoko matrikulak 60€ balio du, eta erdikoak 30€. Hobariak ere badaude, egoera ekonomiko zailean dauden familientzat.

3-9 URTEKO HAURRENTZAT

Gogoratu, 3 eta 9 urte arteko haurrei zuzendutako zerbitzua dela ludoteka, eta arratsaldez egoten dela zabalik (16:45-19:45), astelehenetik ostiralera. Sarrera eta irteera libre izaten da, hau da, haurrak nahi duten orduan joan daitezke bertara, eta nahi beste denbora egon.

Lagunartean eta euskaraz jolasteko, eta ondo pasatzeko gunea da ludoteka, eta jolasaren bidez haurren garapenean laguntzea da bere funtzioa, Ainhoa Arrizabalaga eta Aritz Irigoien bertako hezitzaileek azaldu digutenez. "Jolas librearen aldeko apustua egiten dugu hemen; hau da, haurren nahi eta beharretatik sortzen diren jolas eta ekintzak egiten ditugu, eta gu beraiekin egoten gara, bidelagun gisa. Tarteka, geuk proposatutako ekintzak ere burutzen ditugu, baina beti ere helburu garbi batekin: haurren autonomia, parte hartzea, irudimena eta emozioak lantzea, aniztasuna, talde-lana eta hezkidetzazko bezalako baloreak kontuan hartuz, eta beti euskaraz".

Normalean, ludotekan bertan egiten dute eguneroko jarduna, baina, tarteka, eguraldiak laguntzen duenean, herriko txoko, parke eta natur guneetan ere ibiltzen dira jolasean. "Bai, naturarekiko zaintza eta errespetua lantzen ere saiatzen gara, eta horretan oso lagungarria da duela bi urte ludotekaren atzealdean egokitu genuen ortua", azaldu digute ludotekako



Aritz Irigoien eta Ainhoa Arrizabalaga, ludotekako hezitzaileak

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

TXALOKA LUDOTEKA

• Helbidea

Lizaur kalea, 5

• Orduetgia

16:45-19:45

astelehenetik

ostiralera

• Harremanetarako

688 786 659

txaloka.ludoteka@

gmail.com



hezitzaileek; "haurren neurrirako lanabesak ere baditugu, eta hantxe ibiltzen dira landaketak egiten, ureztatzen, belar txarrak kentzen... esperimentatzen".

OSTIRALETAN HERRIRA ZABALIK

Ohiko jardunaz gain, ekintza bereziak (irailean, Gabonetan eta Aste Santuan) eta Ludoteka Ibiltaria (otsailetik maiatzera, hilean behin) antolatu ohi ditu Txaloka ludotekak. Herriko gune ezberdinetan eta neska-mutiko guztiei irekitako ekintzak izaten dira, eta oso harrera ona izaten dute. Horregatik, aurten, berritasun moduan, ostiralero kalera irtetea erabaki dute ludotekako arduradunek. "Bai, urriaren 14an hasi eta Gabonak bitartean, ostiralero kalera aterako gara eta ekintza ezberdinak egingo ditugu bertara hurbiltzen diren haur guztiekin. Formato txikiko ekintzak izango dira: esku-lanak plastilinarekin, buztinarekin, mahai-jokoak...".

Horrez gain, ostiral batzuetan ekintza bereziak (ipuin kontaketak, magia ikuskizunak...) antolatuko dituzte ludotekan, haur guztiei irekiak.

HAUR GUZTIEI GONBITEA

Prest dago dena ludotekan ikasturte berriari ekiteko, eta bertako hezitzaileek HH-3 eta LH-3 arteko haur guztiak gonbidatu nahi dituzte ludoteka ezagutzera. "Material eta baliabide ugari ditugu hemen eta haurrentzako eskaintza polita eta aberasgarria da. Haurrek estimulu asko dituzte hemen, ikastetxe eta adin desberdinetako neska-mutikoak ezagutzeko aukera ere bai, eta hori oso aberasgarria da beraien garapen pertsonal, sozial eta afektiborako, besteak beste". Urte osoan zehar dago ludoteka ezagutzeko aukera. Beraz, hurbildu eta ezagutu, konpromiso barik.

Informa-Tu taldeak bi hitzaldi antolatu ditu urrirako

Osasunaren defentsa eta promoziorako INFORMA-TU elkarteak bi hitzaldi antolatu ditu datozen egunetarako.

► URRIAK 15, LARUNBATA

Santa Ana antzokia, 18:30

'Klima ingeniarietza eta osasuna'

Hizlaria: **Nauzet Morgade**, aktibista eta dibulgatzailea



ERRESERBA EGITEKO: Bidali whatsapp 605 733 523 zenbakira (Nauzet + zure izena + sarrera kopurua'. Hitzaldia dohainik da.

► URRIAK 18, ASTEARTEA

Santa Ana antzokia, 18:30

'Covid-19aren pandemia gaur egun'

Hizlaria: **Juanjo Martínez**, doktorea medikuntzan eta kirurjian



SarsCov-2arekin lotura duten azken urteko gertakarien berrikusketa egingo du Juanjo Martínez medikuak.

Autlan enpresa auzitara eraman dute enpresako sindikatuek, langileen osasuna ez babesteagatik

Egun AUTLAN EMD enpresa denean manganesoarekin eta azido sulfurokoarekin lanean aritu dira azken 70 urteetan. 2017ko otsailean, bi substantzia toxiko horiek gehiegizko estandarrak nabarmen gaintzen zituztela ikusi zen. Ondoren, 2017 eta 2021 artean egindako 32 neurketetatik 22tan esposizioaren muga-balioa gaintu egin zen, sindikatuek adierazi dutenez, eta iazko irailean frogatu zen enpresako zonalde ia guztietan manganeso eta laino azido kontzentrazioak daudela eta, ondorioz, 34 langile egon direla substantzia horien eraginpean.

2022an arnasbideetako patologien lan jatorria aitortu zaie 5 langileri, eta indemnizazio 'ziztrin' batekin kale gorrian gera daitezkeela dio LABek zabaldu duen prentsa-oharrean. Lanean gaixotu diren langile hauentzat lanpostu egokitza-pena edo irteera duina exijitzen dio LABek enpresari, eta langileen osasuna babesteko neurri eraginkorrak hartzea. Baina enpresak arazoa gutxietsi duela ikusita, Lan Arloko epaitegian salatu dute.

TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOIA



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlanean izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Joxe Mari Jauregialtzo Altzelai, Paiko

Jerardo Elortza

Oñatiar gutxi egon dira harek besteko afiziñuarekin txirindularitzarako. Larogeitaka urterekin hil barri dan Joxe Mari Paikok izugarriko burua eukan lehenagoko eta oraiñagoko karreristen izenak, lasterketen sailkapenak edota taldien gorabeherak argi eta garbi gogoraketako. Sarritan jo izan geben berarengana ziklismo inguruko fotografia zaharretan agerketan ziran nundik norakuen argibide billa. Joxe Mari pozik eskuraketan oskun momentuan eskaketan gotsana; eta baita material barrixak be hurrengo baterako. Milla esker, Joxe Mari. Eztittugu ahaztuko zuk emundako informaziño balixotsuak eta zurekin egindako barriketaldi interesgarriak.



Garaipen historikoa

Historikoa izan da 62. Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa, Mallorkako artzain batek irabazi baitu aurreneko aldiz Oñatiko txapel preziatua. Miguel Adrover eta Xeco txakurra nagusitu ziren 346 punturekin, lan bikaina eginez. Zorionak antolatzaileei.



Jexus Zabaleta irabazle bolajokoan

94 lagunek parte hartu zuten Kurtze Baltz elkarteak antolatutako San Migeletako bolajoko txapelketan. Hiruna bola jaurti ondoren, 6na txirilo botatoko bost lagun artean jokatu zen desberdinketa, eta Jexus Zabaletarentzat izan zen garaipena. Xabi Larreak eta Andoni Narbaizak osatu zuten podiuma. Subastako tiraldian Aitor Otxoa nagusitu zen.



Aire libreko XVIII. Margo Lehiaketa

Rikardo Azkargorta (600€), Jokin Telleria (400€) eta Alipio Ruanok (300€) irabazi zituzten Oñatiko ageriko margo lehiaketako lehen hiru sariak. Oñatiar onenaren saria (300€) Eñaut Uribesalgorentzat izan zen. Gaztetxoaren artean, Garazi Biain (100€+saria) eta Helene Kortabariarentzat (60€+saria) izan ziren sariak. Urriaren 16ra arte daude ikusgai kultur etxean, ikastaroetako margolanekin batera.

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Olaitturri: Agur eta Eskerrik asko

Aurten ez da jaietan Olaitturriren antzerki herrikoirik izango. Bertako 33 kidek "Agur bazkaria" egingo dugu San Migel egunean, Gebaratar Konde Jaunarena izandako Zumeltzegei dorretxeko jatetxean.

Interneten ikus daitekeen bezala (<https://olaitturri.blogspot.com>), musika eta testua uztartuz 1977an hasi ginen antzerki emanaldiak ematen Oñatiko jaietan. Herri Egunean izan zen lehena: "Herri ezteia".

Harrez gero hamaika antzezlan eman ditugu, azkena iazko Gabonetan: "Lope Agirreren estatua".

Eta antzezlanok emateko, ehundaka entsegu egon dira tartean, eta baita milaka eta milaka ordu testuak idazten eta buruz ikasten.

Testuok, emanaldien argazkiak eta bideoak, interneten daude denek eskura. Eta baita argitaratu diren sei liburuetan.

Agur pozgarria da Olaitturri Kultur Elkarteko kideontzat. Saiatu gara geure ekarpena egiten Oñatiko historiari, kulturari, euskarari eta herrigintzari, beti musu-truk, eta heldu zaigu erretiro garaia.

Amaitzeko, ezin ahaztu bidean joan zaizkigun adiskideak. Guztiok bezala, ilusioz aritu zirelako.

Eta ezinbestekoa zaigu lagundu diguten denek eskerrak ematea:

- Hainbat herritarrei, askori, isilean esku bat bota digutelako premia izan dugunean,
- Udalari, diruz eta baliabidez lagundu digulako era ezin hobean, eta
- Medioei, beti aldamenean izan ditugulako lanen zabalkundearen laguntzeko.

Denoi, Agur eta Eskerrik asko.

Olaitturri Kultur Elkarteak

Goian, Txamao antzezlanean (2010) parte hartu zuen taldea. Behean, Makalena elkartekoen 1980ko emanaldia. (Argazkiak: **SANTI MENDIOLA**)



OLAITTURRI KULTUR ELKARTEA

"Oñatiko historiari, kulturari, euskarari eta herrigintzari gure ekarpena egiten saiatu gara"



Antzerki emanaldiez gain, sei liburu argitaratu ditu Olaitturri kultur elkarteak

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAK
Garbitasunaren usaina

653 70 45 47
Oñati



Gure ekintzen berri emango duen atala...

TALDE PROZESUA

Guns`n **Roses** taldearen musika entzuten itzuli ginen autobusean **Roses**-tik (Girona) 2006koen Gaztelekuko prozesuan parte hartu zuten gazteekin. Prozesuaren hasieran 77 gaztek eman zuten izena eta, arrazoi ezberdinak medio, bukaerara 54 iritsi ziren. Parte hartzaileen kopurua hain altua izanik, bidaiarako bi txanda egin behar izan genituen: bata ekainean eta bestea abuztu amaieran.

Prozesu hau garatzen dugun 5.urtea izan da oraingoa, eta bere helburuak besteak beste, talde lana, parte hartzea, autonomia, sormena... bezalako baloreak sustatzea dira. Prozesu honetan, ordainsari ezberdinak irabazteko hainbat ekintza eta lan ezberdin burutu dituzte (eskola kirolean laguntzaile lanak, duatloian bide-gurutzetan laguntzen, herriko haur zein gazteentzako hainbat ekintza antolatzen, gaztelekuko hobekuntza lanak egiten, kartel pegadak burutzen, azokan beraiek ekarritako produktuak saltzen, ...), ondoren, guztion artean aukeratutako bidaia batekin prozesuari amaiera emateko.

Gazteek proiektua ezerezetik hasi zuten, eta egindako lanaren ondorioz lortutako diru kopuruarekin helmuga erreal bat aukeratu zuten beraien aukeren artean: Roses (Girona).

Dena eginda ematen zaion gaztediaren ideiaaren aurka, aurten ere ardurak hartu eta aurpegia emateko prest dauden gazteak aurkitu ditugu. Amesten duen gaztea, elkar-lanaren indarrean sostengua bilatzen duena, sormen eta umorez Oñatiko herrira begira jarrera inplikatuak dituena. Horiek bilatu eta horiek aurkitu ditugu.

Honenbestez, jakin dezazuela jaien ostean emango diogula hasiera 2022-23 ikasturteko talde prozesuari lanerako gogoz dauden 2007an jaiotako 67 gazterekin.



KONTZERTUEN DENBORALDIARI HASIERA

Oporren ostean, urriaren 30ean (12:30etan), itzuliko dira Gaztelekuko kontzertuak. Oraingoan, **Pasadena** taldea zuzenean ikusteko aukera izango dugu (Jon Basaguren eta Libe Garcia de Kortazarren -Izaki Gardenak- proiektu berria). Sarrera 6€.



Urrats berria, urrats handia

Joseba Azkarate izan da, zalantza barik, iraileko protagonista nagusietako bat, kirol arloan. Antxintxika taldeko kirolari oñatiarrak Zumaiako triatolia egin zuen (750m igerian, 20km handbikean, eta 5km korrika egiteko aulkian), mugarri berri bat ezarriz, mundu mailan ez omen dago-eta halako ezgaitasun mailarekin (giharren %13 mugi ditzake) triatloi bat osatu duen inor.

Hala ere, Josebak ez dio aparteko garrantzirik ematen horri, bere helburua ez baita markak egitea, kirol egokituaren alde ateari zabaltzen jarraitzea baizik, Antxintxika Triatloi Taldearen eta inguruan dituen senide eta lagun taldearen babesarekin. Gizartea sentsibilizatzea eta ezgaitasunen bat duen ahalik eta jende gehiena kirola egitera animatzea da Antxintxikaren helburua, oso lagungarria baita osasun fisiko eta mentalerako.

Elkarrekin entrenatzeko taldea sortu nahi dute herriko igerizale batzuek



Talde polit bat sortu eta elkarrekin entrenatzea da herriko igeriketako zale batzuek egin duten deialdiaren helburua. Oraingoan, ez dute planteatzen talde modura federatzea, ez eta konpetitza. Asmoa da, astean bi egun jakinetan ordubete inguruko entrenamendu saioak elkarrekin egitea, Zubikoan, 20:00-21:00 artean, ziurrenera.

Ez da entrenatzailearik egongo, baina entrenamendu mota edo jarraibide ezberdinak prestatuko dituzte taldeko kideen artean. Nahi duenak eta animatzen denak izango du horretarako aukera. Alegia, igerileku kanpoan ez da inor egongo mugimenduak edo posturak zuzentzen, baina elkarri lagunduko diote hobetzen, posible den neurrian.

Denen neurria egokituko dira entrenamenduak, baina saioak jarraitzeko gutxiengo maila bat izatea garrantzitsua izango da.

Elkarrekin ondo pasatzea eta entrenamendu saioak giro onean egitea da helburua, sare sozialetan zabaldu duten deialdian diotenez. "Animau, bildur barik. Probau egingo dogu eta ea zela doian. Edozein duda, gomendio, aportaziño... ongietorrixa izango da. Jaixen ostian hasteia da asmua. Benetan interesa dakunak elkartu, eta entrenamendu saioak zehaztia, kiroldegiko zuzendaritzarekin batera".

Ordunte mendikatera, Aloña Mendiren eskutik

MENDI IRTEERA

Aloña Mendik hil honetarako antolatatu duen irteera Ordunteko mendi-lerrera izango da, **urriaren 16an**. Lanestosa inguruko La Caleratik abiatuta, Los Tornos mendira igo eta handik Zalama (1343m) tontorrera igoko dute, Bizkaia, Kantabria eta Burgosek bat egiten duten mendia. Jaitsiera Burgos aldera (Agüera) egingo dute. Guztira, 17km. eta 970m+, zailtasun barik. Goizeko 7etan izango da irteera, postetxe parean. Izena emateko azken eguna: urriak 13, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com. Bazkideak, 10€. Federatuta egon behar da.



Malen Osa, Kolitza-ko podiumean

MENDI LASTERKETAK Salomon taldeko mendi korrikalari gaztea podiumera igo da berriz ere. Irailaren 24an jokatu zen Balmasedako Kolitza Trail lasterketan izan da oraingoan. Erlojupeko eran jokatu zen 12km.-ko (720m+) lasterketa, eta oñatiarra bigarren sailkatu zen (1:03:06), Oihana Kortazar irabazlearengandik 3 segundora. Biek ala biek, probako errekorra ondu zuten.

Arkonada eta Ruiz podiumean

HERRI LASTERKETAK Saioa Arkonada korrikalari oñatiarrak Orduñako herri krosetan irabazi zuen, irailaren 25ean. Arkonadak 39'36"-an osatu zuen 10km.ko ibilbidea.



Mikel Ruiz, Aloña Mendiko korrikalariak ere, hasiera ona eman dio denboraldiari, eta irailaren 25ean Beasain eta Lazkao artean jokatu zen Josetxo Imaz lasterketan (10 km.) lehen postua eskuratu zuen M40 mailan (34'10'). Zorionak!

MENDIA | ESKOLA KIROLA

FINALISTA EGUNAK

mila neska-mutiko inguru elkartuko ditu Oñatin

Urriaren 23an ospatuko da gurean Finalista Eguna. **Eskola Kirola**ren ikasturte berriko lehen mendi irteera izango da eta iazko ikasturteko irteera guztietan parte hartu zuten gaztetxoak sarituko dituzte. Gipuzkoa osoko mila inguru mendizale gaztetxo batuko dira Oñatin.



Ikasturtean zehar hilean mendi irteera bat egiten da Eskola Kirola programaren baitan

Urtero lez, Finalista Eguna egingo da urrian Eskola Kiroleko mendi irteeren programari hasiera emateko eta, bide batez, iazko mendi irteera guztietan edo ia guztietan parte hartu zuten neska-mutikoei diplomak banatzeko.

Gipuzkoako eskualde ezberdinetan antolatu ohi da Finalista Eguna, txandaka, eta aurtengoa Oñatin izango da, urriaren 23an.

LH5 eta DBH4 arteko neska-mutiko guztiek parte hartu ahal izango dute, eta ondoko orrian ikus daitekeen moduan, ia 8 km.-ko ibilbidea prestatu dute antolatzaileek.

Izen-ematea urriaren 20an itxiko da eta, beraz, ezin da oraindik jakin zenbat jendek parte hartuko duen, baina, eguraldiak laguntzen badu, antolatzaileek uste dute 1.000 inguru mendizale gazte batuko direla Oñatin.

JUANJE MARGOAK
627 818 247



Baserrien eraberritzeak • Isolatzailea fatxadan • Igogailuak

tel: 677 31 20 57 * amaiigartua@gmail.com

8 kilometroko ibilbide polita Finalistaren Egunerako

Aloña Mendiko Mendi saila eta Oñatiko Eskola Kirola elkarteak ari dira urriaren 23ko Finalista Eguna antolatzen, Udala, Foru Aldundia eta Gipuzkoako Mendi Federazioaren babesarekin.

Ondoko irudian ikus daitekeen moduan, ia 8 kilometroko ibilbidea prestatu dute Garagaltza eta Zañartu auzoetan barrena. Foruen plazan egongo da hasiera eta amaiera puntua. Guztira 7,9 kilometro eta 370 metroko desnibel positiboa.

Ibilaldiaren amaieran mokatutxo bat jateko aukera izango dute partaideek, eta, ondoren, diplomak banatuko zaizkie iazko ikasturteko mendi irteera gehienetan parte hartu zuten neska-mutikoei. Hainbat sari ere zozketatuko dituzte parte hartzaile guztien artean.

Esan bezala, Aloña Mendiko mendi saileko eta Eskola Kirola elkarteko kideak ari dira Finalisten Eguna antolatzen, baina egunean bertan gurasoen laguntza ere beharko dute, bidegurutzak zaindu eta dena ondo atera dadin.

Ibilaldi hau LH5 eta DBH4 arteko neska-mutiko guztiei zuzenduta dago. Irekia da eta nahi duten guztiek parte har dezakete, nor bere ikastetxean izena emanda. Urritik aurrera, hileroko mendi irteera bat egingo da Eskola Kirola programaren baitan. ■



7,9 km. eta 379 m+.-ko ibilbidea egingo dute Garagaltza eta Zañartu auzoetan barrena



Mendian ibiltzea baino gehiago

Eskola Kirola programaren baitan hileroko mendi irteera bat antolatzen da LH3 eta DBH4 arteko neska-mutiko guztiei zuzenduta. Zehatzago esateko, bi irteera ezberdin izaten dira; bata LH3 eta LH4koentzat, eta beste bat LH5etik gorakoentzat. Txikien ibilaldiak Oñati inguruetan izaten dira, eta koskorragoak berriz, Gipuzkoako mendietara ere joaten dira, tarteka. Lehia alde batera utzita, ingurumenarekin harremanak sendotzea, naturaz gozatzea, neska-mutiken arteko adiskidetasuna sendotzea eta ondarea ezagutzea izaten da mendi irteera hauen helburua. "Tarteka, Natur Eskolakoekin eta beste eragile batzuekin batera antolatzen ditugu ibilaldiak, eta ondare kulturala, historia edo etnografia bezalako gaiak ikasteko baliatzen ditugu. Oso irteera politak eta aberasgarriak izaten dira. Beraz, animatu egin nahi ditugu gazteak eta gurasoak ikasturte honetako irteeretan parte hartzea", adierazi digute Eskola Kiroleko arduradunek.



oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK



KANTAKERIXAK

Oñatiko kantu eta kontu zaharrak grabatu dituzte Sagarzazu ahizpek

» XIV. mendetik gaur egunera arteko hamaika kantu musikatu dituzte, herritar ugariren partehartzearekin



ASKOTARIKO LANA

Askotarikoa da Sagarzazu ahizpek ondu duten lana, hala gaietan (eliz kontuak, baserrikoak, jauntxoan...), nola musika estiloetan (trikiti doinuak, klasikoa, heavya...). Partehartzeari dagokionez ere anitza izan da CDaren sortze prozesua. Sagarzazu ahizpak arduratu dira, Gure Bazterrak taldekoen laguntzarekin, testuak bildu eta aukeraketa egiteaz, eta herriko musikari askoren artean jarri diete ahotsa eta doinua abestiei. Zenbait kasutan doinua sortu behar izan dute, jatorrizkoa jaso gabe zegoelako.

Irizar estankotan eta Arrano tabernan dago salgai CDa 10 eurotan, gastuei aurre egin eta kanta zahar gehiago jaso eta herriratzen jarraitzeko asmoz. ■

Jaso gabe dauden Oñatiko kantu eta kontu zaharrak bildu, grabatu eta herrira zabaltzea. Horixe Arantzazu eta Mirari Sagarzazu Sacristán ahizpek abian jarri duten **Kantakerixak** proiektuaren helburua.

Oñatiko baserrietan, artxiboetan, kantu-tegietan, aldizkari eta liburuetan aurkitutako hamaika abesti jaso dituzte aurreneko CDan, XIV. mendetik gaur egunera artekoak.

Oñatiarren eta Leinzarren arteko Urrexolako guduari (1388-1401) buruzko *Urrexolako lekaioa* da antzinakoena, eta Araotz, Ugastegi eta Torreazon batutako beste kanta zahar batzuk ere badira tartean.

Baina denak ez dira zaharrak, izan ere, Itziar Ugarteren 'Gu gabe ere' liburuako poema bat eta Maider Arregi bertsolariak propio idatzitako bertso sorta ere jaso baitituzte CDan.

KANTUAK

• FROGAK

Hitzak: Itziar Ugarte Irizar

Musika: Ane Irazabal Martins (ahotsa) eta Aitor Regueiro Plazaola (ahotsa eta kitarra)

• AMA KANTUZALIANAK

Hitzak: Felipa Urkia Elorza

Musika: Lizargarate Trikitizale elkarte, Mikel Albistegi Agirre (trikitixa), Irati Barrena Bengoa (peñaparda), Maddi Santa Cruz Murua (peñaparda eta ahotsa), Maddi Guridi Guridi (panderoa eta ahotsa) eta Alix Barbero Erostarbe (panderoa)

• ZIRULEN

Hitzak: Ezezaguna

Musika: Beatriz Irizar Elorza (ahotsa), Jamile Pinto David de Oliveira (kitarra), Arantzazu Sagarzazu Sacristán (ahotsa eta patxaran botila)

• URREXOLAKO LEKAIOLA

Hitzak: Anonimoa

Musika: Joxe Mari Anduaga Uribetxeberria (kitarra eta ahotsa), Andoni Regueiro Leon (bateria), Arantzazu Sagarzazu Sacristán (txalaparta)

• OÑATI ARRAINONTZI BAT DA

Hitzak: Maider Arregi Markuleta

Musika: Osaba Kimu taldea. Txomin Aranzeta Zumalde (ahotsa), Ane Urkia González (bateria), Unai Murgiondo Ezpeleta (kitarra eta ahotsa), Oier Palacín Aztiria (baxua eta ahotsa)

• DAMATXO GAZTE BATENTZAT

Hitzak: Bernardo Urkia

Musika: Miren Fernández Kortabarría (pianoa), Maider Murua Olalde (trona), Hidenao Dohino eta Ane Urkia González (ahotsak)

• SANDAILIA KANTA

Hitzak: Anonimoa / herrikoia

Musika: Bizarro taldea. Axibar Urteaga Cid (ahotsa eta baxua), Aitor Regueiro Plazaola (ahotsa), Iñigo Palacios Anduaga (kitarra), Iban Idigoras Uranga (bateria) eta Tommaso Galati (kitarra)

• TTIRRIKI TTARRAKA ARAOTZ

Hitzak: Anonimoa / Herrikoia

Musika: Lizargarate Trikitizale elkarte, Mikel Albistegi Agirre (trikitixa), Irati Barrena Bengoa (peñaparda), Maddi Santa Cruz Murua (peñaparda eta ahotsa), Maddi Guridi Guridi (panderoa eta ahotsa) eta Alix Barbero Erostarbe (panderoa)

• OSABA BATEN INSTRUCCINUAK

Hitzak: Manuel Umeraz Agirre 'Goribargoiti'

Musika: Mikel Sagarzazu Sacristán (ahotsa) eta Lee Kore taldea. Aritz Iza Ugarte (kitarra), Pello Uriarte Moreno (kitarra) eta Iñigo Blazquez Tatiegi (baxua)

• LURRIKARAREN BERTSOAK

Hitzak: Ezezaguna

Musika: Loli Ordoki Maritxalar eta Arantzazu Sagarzazu Sacristán (ahotsak), Miren Fernández Kortabarría (pianoa) eta Maider Murua Olalde (trona)

• ORTXE GOIKO-GOIKO

Hitzak: Anonimoa / Herrikoia

Musika: Maddi Murguzur Lizarralde, Maddi Martínez de Salinas Zumeta, Itsasne Lizarralde Lens, Ainhize Mendibe Garai, Maider Urmeneta Obeso, Olaia Molinero Axpe, Amaiur Igartua García (ahotsak) eta Jose Luis Txintxurreta Intxausti (bibolína).

Aita Madinari eskainitako kontzertua emango du Oñati Abesbatzak

URRIAREN 9AN IZANGO DA EMANALDIA, BIDAURRETAN, 19:00ETAN GERARDO RIFÓN ORGANO-JOLEAK ERE PARTE HARTUKO DU



Oñati Abesbatzaren ibilbidean musika konposatzailerik kuttunenetakoa izan da beti Aita Madina (1907-1972), eta bere erreperorioan leku berezia du Madinaren musikak. Gogoratu, 1983an Madinaren *Arantzazu* poema sinfoniko-korala grabatu zuela Bartzelonako Orkestra Sinfonikoarekin eta Elgoibarko Abesbatzaren laguntzarekin, Juan Carlos Irizarren zuzendaritzapean.

Gerora, 1997an, Aita Madinaren heriotzaren 25. urteurrena eta parrokiako organoaren inaugurazioaren mendeurrenarekin bateera, beste CD bat grabatu zuen Madinaren ahots nahasientzako eta organorako musikarekin, Jose Manuel Azkue organo-jatzailearekin eta Oñatiko Parrokiko Koruarekin, eta Burlatako San Blas Abesbatzaren laguntzarekin.

Madinaren *Oñati* rapsodia interpretatuz 1995ean Oñatin eta Azkoitian emandako kontzertuek ere aipamen berezia merezi dute Oñati Abesbatzaren ibilbidean.

Izan ere, Aita Madinaren musika oso presente egon da beti Oñati Abesbatzaren emanaldietan eta, beraz, Zubillagako musikagile handiaren heriotzaren 50. urteurrena gogoratzeko antolatu den kontzertu zikloan ere parte hartu nahi izan du Mirengu Plazaolak zuzentzen duen abesbatzak.

Hala, urriaren 9an, igandea, Aita Madinaren omenezko kontzertua eskainiko du Oñati Abesbatzak Bidaurretan(19:00). Bi zati izango ditu emanaldiak: sakroa eta profanoa. Lehenengoan, *Agur Maria, Tantum ergo, Gloria* edo *Aita Gurea* bezalako eliz kantak abestuko dituzte. Bigarrenean, *Oles ezkonberriak, Akerra ikusi degu* edo *Azokan* bezalako abeste herrikoiak.

Kontzertu honetan Gerardo Rifón organo-jole donostiarraren laguntza izango du Oñati Abesbatzak. Sarrerak (5€) www.oñati.eus webgunean eta Txokolateixan eskura daitezke.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

Aita Madinaren musikarekin grabatutako diskoa aurkeztuko du Suhar abesbatzak Oñatin

Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrena gogoratzeko, Esteban Urzelai zuzentzen duen abesbatzak kontzertua eskainiko du urriaren 16an, Agustinoen elizan

Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrena betetzen da aurten, eta hori dela-eta hainbat ekitaldi antolatatu ditu *Artixa* kultur elkar-teak, Udalaren laguntzarekin, Zubillagan sortutako musikagile handia gogoratu eta berak sortutako musikari bizia ematen jarraitzeko.

Ekainean egin zen aurreneko kontzertua, Aitor Olea organista eta Amaia Azpiazu sopranoaren eskutik. Gero, uztailaren 3an, Oñati Abesbatzak eta parrokiako emakumeen koruak Madinaren omenez Zubillagan ospatu zen meza kantatu zuten, eta orain, urria eta azaroa artean, Madinari eskainitako beste lau kontzertu egongo dira.

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen *Suhar* koruarena izango da horietako bat. 2018an sortutako gizonen korua da *Suhar*, eta Madinaren erreperatorioko hogeitabestirekin grabatu berri duten diskoa aurkeztuko dute Oñatin, urriaren 16an, Agustindarren elizan, 19:30etan.

MUSIKA HERRIKOIA ETA ERLIJIOSOA

Bi zati ditu Suhar-ek grabatu duen diskoak, Esteban Urzelai zuzendariak azaldu digunez. "Madinaren ahots grabeentzako errepertorioetik hautaketa egin eta, alde batetik, otxoteentzat idatzi zituen abesti herrikoiak grabatu ditugu; tartean dira *Beti eskamak kentzen* edo *Oles ezkonberriak* bezalako kanta ezagunak. Diskoaren beste erdia obra erlijiosoei osatzen dute, *Aita Gurea* edo *Agur Maria* bezalako abesti ezagun bezain ederrak tartean direlarik".

Maite Arruabarrena mezo-soprano donostiarrak egin ditu bakarlari lanak *Aita Gurea*-n, eta beste lau obratan Thomas Ospital (Aiherra, 1990) organistaren laguntza izan dute.

Maiatzean egin zituzten grabaketa lanak. Organorako obrak Azkoitiako Andre Mariaren elizan grabatu zituzten, eta ginerako abestiak Oñatin, Madalenako ermitan, hain zuzen ere, Aita



Esteban Urzelai da Suhar abesbatzako zuzendaria.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Suhar taldeko kideak Madalenako ermitaren kanpoaldean

AITA MADINA



Francisco Madina Igarzabal, Aita Madina, Zubillagako *Txipitxaile* baserrian jaio zen 1907ko urtarrilaren 29an.

Filosofia eta Teologia ikasketekin batera, musika eta konposizio arlokoak ere egin zituen, Oñatin eta Burgosen.

Kanonigo Laterandarren lagundian sartu eta handik bi urtera, 1931n, Argentinara destinatu zuten eta bertan eman zituen ia hogeita bost urte. Buenos Airesko *Lagun Onak* abesbatzaren, *Saski-Naski* euskal gazte taldearen, eta Saltako koru polifonikoaren sortzaile eta eragile nagusietako bat izan zen.

1947an Nicanor Zabaleta harpa jotzaile handia ezagutu zuen, eta haren interpretazioei esker, Madinaren partiturek Ipar Amerikako editore inportanteenen arreta bereganatu zuten. 1958tik aurrera New Yorken bizi izan zen.

Ehunka obra konposatu zituen orkestra, kitarra, harpa, piano, organo nahiz abesbatzendako.


1972ko ekainaren 30ean zendu zen, Oñatin zegoela.

Madinaren sortetxetik 300 bat metrora. Diskoaren aurkezpen kontzerturako ere leku berezia aukeratu dute, Aita Madinak bere fraide bizitzari hasiera eman zion Oñatiko Agustindarren elizan izango baita (sarrera 5€), eta *Suhar* taldearen diskoa ere bertan eskuratu ahal izango da, labetik atera berri berritan.

Aita Madinaren omenezko disko hau euskal musikagileen lana sustatu eta zabaltzeko asmoz KUP Taldeak abian jarri duen *Euskal Choral Music* bildumako hirugarrena izango da. Aurreko bi lanak Aita Donostia (1886-1956) eta Xabier Sarasola (Beasain, 1960) konpositoreei eskainitakoak izan dira.

SUHAR ABESBATZA

Esteban Urzelairen ekimenez sortu zen *Suhar* abesbatza 2018an, Euskal Herri mailan gizonezkoen koruetan zegoen hutsunea bete eta euskal musika koralararen tradizioa biziberritu eta berritzen laguntzeko asmoz.



Musika koralean ibilbide luzea duten 30 bat gizonezko osatzen dute taldea, eta Euskal Herrian antolatzen diren musika jaialdi garrantzitsuenetan parte hartu izan du.

Esteban Urzelai zuzendariari dagokionez, gogoratu, Espainiako Abesbatza Nazionaleko zuzendariordea dela iazko martxoaz geroztik. ■

▲
Aita Madinaren 20 abesti biltzen ditu *Suhar* gizon-koruaren diskoak, erdiak erlijiosoak, eta beste erdiak euskal kanta herrikoiak



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiestui Kortabarria
Irakaslea

www.4sgoiena.com

Arantzazuko Ama, 3 behea • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
943 53 36 57 • 4sgoiena@gmail.com

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Ipuin kontaketak eta tertulixan saio irekia, **LIBURUTEGIEN EGUNA ospatzeko**

► 'Heldu da kontua' **Helduentzako Euskarazko Kontalaritza Zirkuitoa** Oñatin estreinatuko da urriaren 26an. ► Mireia Delgadok 'Hariak, jostorrazak eta zauriak' ikuspegi feminista duen ahozko narrazioa eskainiko du.



Mireia Delgado durangarra da 'Heldu da kontua' proiektuan saritutako bi kontalarietako bat, eta Oñatin aurkeztuko du 'Hariak, jostorrazak eta zauriak' helduentzako ahozko narrazioa urriaren 26an

Helduentzako euskarazko kontalaritza sorkuntza berriak sustatzeko asmoz, **'HELDU DA KONTUA'22** sorkuntza saria jarri da martxan aurten, May Gorostiagaren (Ahoz Aho / Nazioarteko Ahozkotasunaren Jaialdia) ekimenez. Helduei zuzendutako euskarazko kontakizun berriak sortu eta hauek taularatzeko zirkuito bat sortzea da helburua.

ESTREINALDIA OÑATIN

Urtero bi euskal kontalari hautatuko dituzte 'Heldu da kontua' sariaren bidez, eta gutxienez hiruna emanaldi egingo dituzte. Aurtengo sarituak **Mireia Delgao** eta **Maidier Alcelay** izan dira, eta Oñatin izango da estreinaldia.

Zehazki, Mireia Delgado Exposito durangarra etorriko da Oñatiko udal liburutegira, urriaren 26an (zine aretoan, 19:00), eta ikuspegi feminista duen **'Hariak, jostorrazak eta zauriak'** izeneko narrazioa eskainiko du.

Honela aurkezten du egileak: "Lotzen gaituzten hariak ikusezinak omen dira eta, batzuetan, zaila da haien neurria hartzea... Zein da hari horiek mantentzeko tentsio egokia? Zenbat tiratu eta zenbat askatu?. Korapiloak sortzean, zein muturretik egin behar dugu tira? Eta hariak apurtzean? Zeintzuk dira lotura horiek utzitako orbainak? Nola josi ditzakegu hariak gero eta gutxiago josten duen jendarte batean?".



Txani Rodríguez idazlearekin Tertulixan

Udal liburutegiko gaztelaniazko irakurketa taldeak gonbidatuta, **Los últimos románticos** nobelari esker 2021eko gaztelaniazko Euskadi Literatura Saria eskuratu zuen Txani Rodríguez Hernández (Laudio, 1977) kazetari eta idazle arabarrarekin solasean aritzeko aukera izango dugu urriaren 25ean, kultur etxeko zine aretoan (18:30). Mónica Leivak gidatu eta dinamizatuko du saioa, eta irekia izango da, herritar guztientzat, irakurle taldeko kide izan ala ez.

Idazlea ez ezik, kazetaria eta gidoigilea ere bada Txani, eta lau eleberriz gain, kontakizun bilduma bat eta bost komiki ere argitaratu ditu. Sormenezko idazketa irakaslea da Bartzelonako Ateneu eta Bilboko ALFA Literatura elkartearen, eta hainbat komunikabidetan ere kolaboratzen du, besteak beste Radio Euskadiko *Pompas de papel* saioan.

Idazketa lantegia eta tertulixan euskaraz

Udal liburutegiak antolatzen duen Idazketa lantegiaren ikasturteko aurreneko saioa urriaren 17an izango da, Joxe Mari Iturraldekin gidatuta.

Euskarazko irakurle taldeak urriaren 18an izango du lehen hitzordua, eta Nirllit (Juliana Léveillé-Trudel) eleberraren inguruan jardungo dute, Miriam Lukik gidatuta.

LIBURUTEGIEN NAZIOARTEKO EGUNA URRIAK 24

Ezagutzen duzu zure liburutegia? Ezagutzen bertan antolatzen diren ekintzak? Ikasteko tokiak baino ez direla uste duzu? Aspergarriak? EZ!. Gaur egungo liburutegiek biltzeko tokiak dira, partekatze guneak, gizarte gisa eta pertsona gisa ahalduzko beharrezko tresnak eskuratzeko guneak.



Herritar askeak, kritikoak, ideia propioak dituztenak, toleranteak eta parte-hartzaileak sortzeko lan egiten dugu. Denek dute toki bat liburutegian. Eta hemen gaude, bizitzaren bidaian guztiei laguntzeko prest. Une zailtan eta alaietan. Zure zalantzei, tristurari, bizipozari, jakin-minari, ikasteko gogoari erantzuteko prest.

Liburutegiko apaletan, gerran dauden herrialdeetan idatzitako liburuak aurkituko dituzu. Argazkigintzako eta ametsak interpretatzeko eskuliburuak. Mikrobioei eta galaxiei buruz hitz egiten duten saiakerak. Munduko errezetarik onenak. Modaren historia eta arkitekturaliburuak. Atzo argitaratutako liburua eta, bere ondoan, duela bost mende idatzitako bat. Liburutegian ez ditugu denboramugak eta muga geografikoak ezagutzen. Denak daude gonbidatuta: bertakoak eta atzerritarrik, erlijiosoak eta agnostikoak, politikoak eta apolitikoak, arraza edo genero bereizketarik gabe. Utopiatik gertuen dagoena da. Utopia errealitate bihurtzeaz ari gara.

Arantzazu Ibarrondo
Udal liburutegiko zuzendaria

Haurrentzako ipuin kontaketa

Urtero bezala, hileko azken ostegunetan haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioak (Ostegun kontalariak) antolatuko ditu Udal Liburutegiak. Aurtengo lehena **urriaren 27an** izango da, Haur liburutegian (18:00), eta 6 urtetik gorako haurrei zuzendutako saioa izango da, Lur Kortaren eskutik. Gobidapenak hilaren 17tik aurrera eskuratu ahal izango dira liburutegian. Izena emateko: 943716111 / liburutegia@onati.eus /688 732 826 (whatsapp)



Bisitak liburutegira haurrentzat

Liburutegien Nazioarteko Egunaren harira, herriko 4 urteko umeei zuzendutako bisitak egingo dira liburutegian (ikastetxeekin adostuta). Lur Korta ipuin kontalariak gidatutako bisitak izango dira, eta liburutegia zer den eta bertan zer aurki dezaketen ikusteko aukera izango dute, modu atseginean. Hazitxoak ereiteko modu bat da, irakurle berriak sortzeko itxaropenarekin.

Kultur etxeko IKASTAROAK

► Izena emateko epea:

Urriaren 7tik 19ra

► Gazteentzako (14-18 urte) pintura taldea egongo da aurtan



Udaleko Kultura sailak antolatzen dituen tailer-ikastaroetan izena emateko epea urriaren 7tik 19ra zabalduko da. Internetez (www.onati.eus) edo kultur etxean (astelehenerik ostiralera, 10:00-13:00 / 16:30-20:30) eman ahal izango da izena. (Langabezian egon eta prestazio ekonomikorik jasotzen ez duten herritarrik tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira). Hauxe da aurtengo eskaintza:

PINTURA

- **NAGUSIAK** (irakaslea: Gurutze Mugika).
Astelehen eta astearteak, 16:00-18:00 / 18:00-20:00
- **HAUR ETA GAZTEAK** (irakaslea: Mayra Jiménez)
 - HAURRAK: 6-8 urte (LH-1, 2 eta 3)
Ostegunak, 17:00-18:30 / Ostiralak, 17:00-18:30
 - GAZTETXOAK: 9-13 urte (LH-4, 5, 6 eta DBH-1, 2)
Ostegunak, 18:30-20:00 / Ostiralak, 18:30-20:00
 - GAZTEAK: 14-18 urte (DBH-3, 4 eta Batxi 1, 2)
Ostiralak, 15:30-17:00

ESKULAN DEKORATIBOAK

Astearteak, 15:00-17:00 / 18:00-20:00
irakaslea: Jasone Agirre (18 urtetik gorakoentzat)

PATCHWORK, HARDANGER, MALLORQUIN

Asteartelehenak, astearteak edo ostegunak
15:00-17:00 / 18:00-20:00
irakaslea: Arantzazu Lizarralde (18 urtetik gorakoentzat)

Klimametraje, klima aldaketari buruzko film laburren gazteentzako lehiaketa antolatu du Ihebek

Klima aldaketa euskal herritarren agendan jartzeko helburua duten ASTEKLIMA-2022 jardunaldien harira, gazteei (18-30 urte) zuzendutako KLIMAMETRAJE film laburren I. lehiaketa antolatu du Ihebe sozietate publikoak.

Bi atal izango ditu lehiaketak: **A-** Klima aldaketak Euskadin dituen inpaktuak; eta **B-** Euskadin bultzatzen diren irtenbideak, ekimenak edo tresnak.

Azken batean, kontzientziazioaren eta sentsibilizazioaren bidez klima-ekintza sustatzea da helburua, gazteei ahotsa emanez eta entzunez. Bizikleta elektrikoak eta asteburuko egonaldiak landetxeetan, emango dituzte sari gisa.

Azaroaren 18a da lanak aurkezteko azken eguna. Informazio gehiago, www.asteklina.eus/klimametraje.

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

KONTZERTUAK

URRIAK 9 / 19:00**OÑATI ABESBATZA + GERARDO RIFÓN
ORGANO-JOLEA**Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrena gogoratzuz, Mirengu Plazaolak zuzentzen duen Oñati Abesbatzaren kontzertua, Madinaren kanta ezagunenak abestuz. Sarrera, 5€. [Bidaurretan](#)**URRIAK 16 / 19:30****SUHAR ABESBATZA**Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Suhar gizon-koruak Aita Madinaren omenez grabatu duen diskoa aurkezteko kontzertua. Sarrera, 5€. [Agustinoetan](#)**URRIAK 28 / 21:00****JOHN DEALER & THE COCONUTS**Legazpiko rock taldearen kontzertua. Sarrera, 5€. [Ikatz tabernan](#)**URRIAK 30 / 12:30****PASADENA**Gasteizko rock-folk taldearen kontzertua, Jon Basaguren eta Libe García de Kortazarren —Izaki Gardenak— proiektu berria. Sarrera, 6€. [Gaztelekuan](#)

OÑATIKO XIV. TRIKITI JAIALDIA



Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta, Oñatiko XIV. Trikiti Jaialdia ospatuko da urriaren 22an, arratsaldeko 17:00etan Santa Ana Antzokian.

Parte hartzaileak:

- Andoitz Antzizar, Maider Zabalegi, Urbil Artola
- Lutxurdio, Laja, Aitziber eta Ibon
- Irma eta Jokin
- Leturia, Alabier, Irune eta Izer
- Leire Zumeta, Amaia Arza eta Gari Otamendi
- Mikel Albistegi, Olatz Kortabarria eta Oier Kortabarria
- Irati eta Mirari

Sarrerak:

- Txokolaterixan: urriaren 7tik 8ra (12€)
 - Online (udaletxeko webgunean): urriaren 10etik aurrera (12€ + kudeaketa gastuak).
- Pertsonako gehienez 5 txartel erosi ahalko dira.

Afaria:

Jaialdi ondoren Itturitxo jatetxean afaria izango dugu. Honen inguruko informazio gehiago gure sare sozialetan jarriko dugu.

HITZALDIAK

URRIAK 11 / 19:00**'OÑATIKO ERREKAK HOBETZEKO
PLANA ETA TAILERRA'**Hizlaria: Foru Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako saila, eta Joxerra Díez, biologoa eta EHUko irakaslea. IBAILAGUN jardunaldien baitan. [Kultur etxean](#).**URRIAK 14 / 18:30****'LO QUE SABEMOS DEL ICTUS'**Hizlaria: Angel Chamorro, neurologoa. Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana antzokian](#).**URRIAK 15 / 18:30****'KLIMA INGENIARITZA ETA OSASUNA'**Hizlaria: Nauzet Morgade, aktibista eta dibulgatzailea. Informa-Tu taldeak antolatuta. [Santa Ana antzokian](#).**URRIAK 18 / 18:30****'COVID-19aren PANDEMIA GAUR EGUN'**Hizlaria: Juanjo Martinez, doktorea medikuntzan eta kirurjian. Informa-Tu taldeak antolatuta. [Santa Ana antzokian](#).**URRIAK 19 / 10:00****'MUNDUA ARNASTU NAHIAN'**Hizlaria: Aitor Iginiz, bidaiaria. Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana antzokian](#).

ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Altzariak

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

LITERATURA

URRIAK 25 / 18:30
TERTULIXAN SAIOA, TXANI RODRIGUEZ IDAZLEAREKIN
Liburutegien nazioarteko egunaren harira, Txani Rodríguez idazlearekin — Euskadi Literatura Saria 2021— tertulixan sario irekia nahi duten herritar guztiei irekia. **Kultur etxean.**

IPUIN KONTAKETAK

URRIAK 26 / 19:00
'HARIAK, JOSTORRATZAK ETA ZAURIAK'
Helduentzako ipuin kontaketa euskaraz, Mireia Delgadoren eskutik. **Kultur etxean.**

IBILALDIA

URRIAK 16 /
PARKETXETIK GOMIZTEGIRA
Arantzazuko Parketexeak antolatuta, txango gidatua artzain eskolara, gazta dastatzera.

JOLASA

URRIAK 30 /
ORIENTAZIO JOLASA FAMILIAN
Arantzazuko Parketexeak antolatuta, 'Arantzazuko altxorrak' orientazio jolasa.

IKASTAROA

AZAROAK 5 /
LIHO LANDAREAREN ERABILERA
Arantzazuko Parketexeak antolatuta, liho landarearen erabilera Euskal Herrian, makrame ikastaro batekin.



Hileko gomendioa

Mundua aldatu zuen bakailaoaren istorio harri-garria: bere nortasuna, ohiturak, familia zabala, azken finean, merkatarien, idazleen, sukaldarien eta arrantzaleen historia errepatatzen du. Anekdotaz, errezetaz eta bitxikeriaz betetako liburua.

Liburua



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Urriak 13, 21, 22, 23 eta 31. Azaroak 9 eta 10.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Urriak 5, 6, 14, 15, 16, 24 eta 25. Azaroak 1, 2 eta 3.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Urriak 7, 8, 9, 12, 17, 18, 26 eta 27. Azaroak 4, 5 eta 6.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Urriak 10, 11, 19, 20, 28, 29 eta 30. Azaroak 7 eta 8.

ZINEA



Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).
Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Urriak 6 - 10

ZINE KLUBA:
Ninjababy
NAGUSIAK:
Modelo 77
GAZTETXOAK:
El colegio de los animales mágicos



Urriak 13 - 17

ZINE KLUBA:
Todo el mundo odia a Johan
NAGUSIAK:
Argentina 1985
GAZTETXOAK:
Izurde mutikoa



Urriak 20 - 24

ZINE KLUBA:
Delante de ti
NAGUSIAK:
El vasco
GAZTETXOAK:
Operación bebé oso



Urriak 27 - 31

ZINE KLUBA:
Mass
NAGUSIAK:
En los márgenes
GAZTETXOAK:
Parque salvaje



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA Oñatiar familia batek etxebizitza (2 edo 3 logelakoa) alokatu edo erosi nahi du. 680 398 022

ETXEBIZITZA Ukrainar emakumea, semearekin, etxebizitza alokatu nahi du. Lana badu eta erreferentziak ere bai. 676 168 661.

ETXEBIZITZA Etxebizitza erosi nahi nuke Oñatiko erdigunean, 120m²-tik gorakoa. Deitu: 610 466 020.

ODOL ATERALDIA

URRIAK 7 / 16:30-20:30
Enpresagintza fakultatean. Txanda hartzeko, deitu: 943 007 884

Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ☑ Heriotza
- ☑ Autoak
- ☑ Bizitza

- ☑ Istripuak
- ☑ Ontziak
- ☑ Osasuna

- ☑ Etxebizitza
- ☑ Aurrezkia
- ☑ Laborantza

Helbidea: Moxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS

URBIA

MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (II)

APOKALIPSIAREN LAU ZALDIZKUAK: GOSIA, GERRIA, HERIOTZIA ETA ESPERANTZIA



Inma: Kaixo, Joseba, aspaldiko! Munduan zer barri?

Joseba: Munduan zaharrak barri, orain eta betik! Eta latzak, gaiñera!

I: Larriketan hasitta ala, Joseba?

J: Larriketan esaten don? Barri onik entzuten al xonagu, ba, iñun, apur bat animaitteko?

I: Zergatik hago, ba, hain etsitta? Gerriagatik edo?

J: Ba, bai, bestiak beste, gerriagatik, baiña ez bakarrik horregatik. **Gerria** don gizakixok sortu dogun kirtenkerixarik haundixena, baiña baxagozan gehixago.

I: Esaterako?

J: Ba, esaterako, pandemixia: gizakixok munduko biugarittasuna ez zainketiagatik, bueltan etorri xakun ondorixo latz eta bilddurgarrixa.

I: Eta baxagok besterik?

J: Osasun faltia! Badakin, osasuna galdu ezkeri etxagon zer egiñik! Pandemixiak gaixo mordua eta **heriotza** ugari ekarri xon, eta, horrekin batera, orain arte bizi izandako balixo asko goittik behera etortia, mundua hankaz gora jartia.

I: Esplikau heike hobeto zer dan hori?

J: Bai, esan gura ñonan bilddurra eta ikaria besterik eztaguen sasue honetan, itxaropen eza, bizitteko gogo faltia, ondo edo gaizki egittiaren artian iñolako alderik ez ikustia, saiaketiaren kulturria galtzeia, hau da, dana igual-igual izatia —zurixa edo baltza parra—, eta beste hamaika holako gure bizitzako eguneroko kontuak dirala.

I: Egon hadi-egon hadi, zirindara hori iraunsteko entrama ona bihar dok eta!

J: Eta etxonat danak kontau!

I: Oraindiok gehixago?

J: Klima-aldaketia be aittaketan xonai, baita lan faltia eta **gosia** be. Hortaz, esandakuak esanda eta ikusittakuak ikusitta, ezton zaila asmaittia zer etorri lleiken...

I: Hau dok markia, hau! Eta baxagok esperantzarik?

J: **Esperantzia** esaten don? Nik gauza bat bakarrik esango donat: goiazan bide honetatik zuzen-zuzenian zulora goiazan, eta akordau orduko bapeza bihurtu gura ezpadogu, abixaan jarri biharko ditxonagu mundu hobiaren aldeko neurri eta jardun ugarixak, eta holaxe bakarrik, buru onez eta koherentziaz jokatuaz, emungo xaugu bueltia egoera makur honi!

I: Hala bedi, Joseba!

ANTXIÑAKO  FOTOGRAFIXIA

Olabarrietako erlijioso batzuk

Azkenengo gizaldi erdi honetan gure gizartia dezente aldatu dala agiriko kontua da, eta hamarkada batzuetan gora goiazekoa ondotxo eta hurretik ezagutu ditzugu kanbixuok. Esate baterako, sasue bati **mutiko pillia faten zan fraide edo abadetarako ikasketak egittera**, eta **neskak komentu edo monasterixotara monjak izateko asmotan**. Arrazoiak era askotakua suertaitzen ziran: benetako bokaziñuak baztertu barik, eragin haundia eukain, bestiak beste, orduko elizaren inddarrak, familixen erlijio-giro sakonak, seme-alaba batzueiri urtenbidia topaitteko premiñiak edota ikasketa merkiak izateko aukeriak.

Oñatin **Arantzazuko frantziskotarrak eta kaleko agustiño laterandarrak kompetentzia latzian** jardun euen luzaruan, ikasliak eurenganaketako. Hasiera bati Bitorixako seminarixora eta geruago Donostiakora faten ziran mutiko gaztiak be etziran gutxi. Baiña, hainbesterañio izan ez arren, beste ordena batzuetan be sartu ziran oñatiar banaka batzuk: **pasionista, paul, marista, jesuitta, marianista, korazonista** eta abarretan. Emakumientzako komentu-monasterixo honeik egozen orduan herrixan: **Bidaurrera, Santa Ana, Altxibarko benediktinena, Ospitaleko nahiz Zañartuko karidadeko monjena eta Santa Marinako sierbena**.

Askok ikasketak akabaitten ezpazittuain be, kaleko zein auzuetako **txantxikuar ugari izan zan fraidegei, monjagei edo abadegei**. Auzuen artian **Olabarrieta nabarmendu zan** sasue bati. Horren adibidetxo bat gaurko fotografixia dozue. Bertan ikusi leikienez, Joxe Mari Agirrebaltzategi auzoko kapillauak animauta, **hainbat elizgizon olabartar alkartu ziran euren senide eta lagunekin batera**, orain dala 60 urte pasatxo. **Muestra txiki bat besterik ezta**: gizakumiak bakarrik agiri diralako eta hoinen artian be askoz gehixago ziralako Olabarrietakuak. Auzoko taberna aurrian dagoz, atzekaldian ezkerretara Zelabarren eta Taberna Zaharra (Igartua-enea) baserrixak ikusten dirala. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek ditzuzue auzotarrok.

Goixeneko illaran: **Leandro Ugarte, Simonena; Juan Joxe Irizar, Aittapekua; Benito Zubia, Zelabarregua; Jeronimo Araolaza, Aldaikua**; eta **Felix Murguzur, Arotzena**.

Erdiko illaran, zutik: **Jenaro Igartua, Taberna Zaharrekua; Felix Ugarte, Errotakua; Sebastian Orueta, Santzakua; Andres Zubia, Legarrekua; Federiko Billar, Zediagakua; Patxi Elkoroiribe, Billar Goittikua; Eujenio Markuleta, Basazabalgua; Eulogio Kortabarria, Erretxingua; Joxe Mari Ugarte, Errotakua, korazonista; Paulo Lazkanoiturburu, Juanpuena; Joxe Mari Lizarralde, Ugarte Haundikua; Ramon Lizarralde, Ugarte Haundikua, korazonista; Pedro Ugarte, Ugarte Txikikua; eta Jabier Ugarte, Errotakua**.

Beheko illaran, jarritta: **Reyes Zubia, Zelabarregua, agustiño laterandarra; Anastasio Aizpeurrutia, Errementarikua, marista; Bittor Belategi, Tiruena, korazonista; Joxe Murguzur, Arotzena, frantziskotarra; Leandro Igartua, Borraixena, Antzuelako parrokua; Julian Irizar, Aittapekua, jesuittia; Antonio Lizarralde, Ugarte Haundikua, korazonista; eta Bixente Ugarte, Simonena, korazonista**.

Argazkixa Bixenta Igartuaren bittartez aillegau xaku. Argibidiak, berriz, Bixentak eta Reyes Zubiak eskuratu doskue. Eskerrik asko bixoi!



garmendia tejas

OBRA BERRIA / EGURREZKO EGITURAK



Basozabal Industrialdea 5 - N-1, km. 417
20212, Olaberria (Gipuzkoa)
T. 943 161 032
www.garmendiatejas.com

ERABERRITZEAK



BASERRIEN BIRGAITZEAK



BIRGAITZEAK



ERA GUZTIETAKO ESKU HARTZEAK



Exekuzio
azkartasuna



Zerbitzu
personalizatua



Zerbitzu
teknikoa



150 obra
urtean



25 urtez
lanean

